

2016ko maiatzaren 14a | X. urtea • 467. zbk.  
0,50 euro



GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



PELLO MARIÑELARENA KARTZELAN HIL  
ETA 26 URTERA, LEPO BERETIK BURUA

> 17 Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

**Analisia:****Bost mende betez, «Utopia»!** 04**Txekiar Errepublikaren izenaren inguruko eztabaida** 08**Gasteizko azken beiragileak** 12**Pello Mariñelarena gogoan, preso erien askatasuna aldarri** 17**Elkarrizketa: Candido Ibar, Pablo Ibarren aita** 22**Eskola jantokietan elikagai ekologikoak txertatzeko gida** 26**In fraganti: Eneko Agirre eta Josu Goikoetxea** 28**Juantxo Egañaren behatxulotik** 31**SINADURAK:****03 Iratxe Urizar:** Taupadaka**10 Unai Fernandez de Betoño:**  
Euskararen txertaketa hirigintza tresnetan**12 Mikel Zubimendi:** Ireki zuloa, mapari erliebea eman, bildu cromlechera**16 Iñaki Altuna:** Amaia Ballesteros**20 Gorka Zozaia:** Beltzak gara behelaino artean?**21 Iker Barandiaran:** Hil aurretik, topa egin**25 Xabier Mikel Errekondo:**  
Euskarak «lobby»-a behar du**25 Maider Iantzi Goienetxe:**  
Gazteen erdiak galdu ditugu**30 Iratxe Esnaola:** «Trending topic»EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOHEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK) DIRUZ LAGUNDUA

Gipuzkoako Foru Aldundia

{ datorrena } Iratxe Urizar

# Taupadaka

Ei Iratxe, begira zer ari garen pentsatzen antolatzea. Zer iruditzen, apuntatuko zara laguntzera?». Horrela izan nuen orain hilabete batzuk Mirentxin Gidarien ekimenaren berri. Aurrekontua? Zero. Ideia zoroa? Azken urteetan entzun dudan zoroenetarikoa. Kolokialki *puntazo bat* bezala ezagutzen dugun horietakoa. Eta, zalantzarik gabe, «bai, noski!» erantzun nuen.

Batzuetan gertatzen da zerbaitean buru-belarri sartzen garela inolako zalantzarik izan gabe, baina ez buruak horrela esaten duelako. Beste nonbaitetik dator grina eta zerbaiten parte izateko nahi geldiezina; tripetatik, bihotzetik hurbilago dagoena.

## ETA PROIEKTUA ABIATU ETA FORMA HARTZEN HASI ZEN

Prozesu guztian zehar, Zea Mays taldeak Kukutzari eskainitako abestia buruan izan dut askotan; bilbotarra izanik bereziki, gu guztiontzako ereserki bihurtutako kanta eta letra. Zentzu logikotik harago proiektu batekiko atxikimendua ederki deskribatzen duelako. Logika guztien gainetik, oztopo guztien gainetik, proiektua osatzen duten bihotz taupadekin elikatzen dena. Mirentxin Gidariak proiektua bera ere horrela hasi zen. Pixkanaka. Behar bat ikusi eta pentsatu gabe soluziobide bat bilatu: dispertsioaren alde isilduena, senideek asteburuz asteburu gainditu beharreko lehenengo oztopoa: milaka kilometro egin behar ditut, nola egin, norekin lagunduta joan, dirua nola bildu, non atsedean hartu... Horrela, modu praktikoan lagundu eta behintzat bidaiaren oztopo hori arintzeko asmoz pertsona batetik hasita boluntario sarea handitzen joan zen pixkanaka. Batzuk dispertsioaren kaltetu zuzenak (senideak edota aurretik preso egonda-koak), beste asko arazoa hurbiletik bizi ez baina errealitate gordin horren aurrean zerbait egiteko prest eta modu anonimoan konpromisoa hartuta. Alokairuzko furgonetatik, furgona propioak izatera. Gidari sarea, mekaniko sarea, furgonetak txukun eta modu seguruan bidaiatzeko moduan zeudela ziurtatzen zutenen sarea. Kartzeletan zegoen behar handienaren diagnostia egin eta bidaiak antolatuta.

Kanpoan ibilitakoei gertatu izan zaigu boluntario sare honen berri ematean ulertzea bera ere zaila egiten zitzaien lagun asko topatzea. Agian, buruarekin ulertu

nahi zutelako, eta esan bezala, badaude gauza batzuk agian azalpen handirik gabe ulertzen direnak edo bestela guztiz ulergaitzak direnak. Beste nonbaitetik dator elkartasun guztiz eskuzabal hori norberaganatzeko gaitasuna.

Furgo Martxa iragartzen zuen prentsaurrekotik hasita (furgoneta bat aizkolari batek erditik moztuta, nola bestela? Hipsterrak batzuetan eta horrelakoak ere bagara beste batzuetan), non Arriaga antzoki paretik pasa ziren turistek ezin zuten begi bistan gertatzen ari zena sinetsi. Martxa Bilbo zeharkatzen (400 furgoneta, furgoneta bat preso bakoitzeko, kolektibo bat baina bakoitzaren tamaina, indibidualtasuna ederto marraztuz) eta Plaza biribilean istripu bat antzezten ari zirela (presoen senide eta lagunak etengabeko arriskua), begira zegoen neska gazte baten ezin ulertua; «*no entiendo nada, hay un accidente y está todo el mundo aplaudiendo*». Azalpena eman eta gero, bere harridura are handiagoa zen.

Argi dago horrelako ekimenekin ez dela dispertsioarekin bukatuko. Erabaki politikoa izanik, hortik dator bai-

Furgo Martxarekin plazaratutako salaketatik harago, elkarrekin energia eta elkartasunez beteriko ekimen bateratua egin zen. Ospatu zen. Ilusioz, pozez eta esker onez betetako ekimena

ta berarekin bukatzeko bidea. Baina egindako iniziatibak salaketaz harago duen balio erantsia du. Elkarrekin, energia eta elkartasunez beteriko ekimen bateratua egin zen. Ospatu zen. Ilusionagarria, pozgarria eta esker onez bete, alde ezberdinetara zabaltzen zen esker ona: gidariei beraien laguntzagatik, senideei beraien duintasunagatik, antolatzen lagundu duten guztiei eguna posible egin zutelako, Larrabetzuko herriari euren etxea gogo onez uzteagatik. Giro ezin hobea, elkarrekin gauza handiak egiteko gai garela argi eta garbi erakutsiz. Zalantzarik gabe eta Aioraren hitzetan, txikitasunetik, handitasunera.

Entzun izan dut euskaldunok munduko zilborra garela uste dugula maiz. Argi dago ez garela munduko zilborra eta onartzen dut. Ados. Baina gurea bezalako herri-rik ez dago munduan. •

Tomas Morok (1478-1535) “utopia” neologismoa sortu zueneko bostehungarren urteurrena dugu aurtengoa. Utopia, hots, leku ona, leku perfektua; baina baita aurkitu ezinezko, edo existitzen ez den lekua ere. “Utopia” liburu bat da, 1516an argitaratua, eta, Utopia, uharte imajinatu bat ere bada. Hura deskribatzean, sormenaren eskutik existitzen ez den gizarte ideal bat modu bizi eta zehatzean aurkeztean, zerbait handia, oso handia lortu zuen Morok.

Utopia bost mende zahar da, baina berdintasunean eta jabe-go pribatuaren abolizioan oina-

eta fantasiazko egituraren atzean modernitatearen eztabaida asko eta asko barnebiltzen di-tuelako. Hein batean, “liburu-bonba” bat izan zen. Material le-herkari askorekin paratutako liburua. Izan ere, bere formula-zio kritiko, ironiko eta fantasiaz-kotik harago, eztabaida sutsuak eta pasio basatienak eragin zi-tuen. Erabateko arrakasta jada 1516an izan zuen, eta orduz ge-roztik ez dio berriz argitaratu eta irakurria izateari utzi.

“Utopia” lanaren interpreta-zio asko daude, polemikak eta tentsioak ez dira falta, baina, du-darik gabe, literaturaren histo-rian eta pentsamendu politiko-an aparteko lekua merezi du.

Fantasiatzko Utopia uhartean, errege eta aristokraziarik gabe-ko errepublika oparoa da lege. Dibortzioa baimenduta dago, apaizak ezkon daitezke. Emaku-meek jainkoen aginduak zuzen-ean hartzen dituzte, eta erlijio askatasuna (ateismoa barne) baimenduta daude.

Utopian ez dago ez dirurik ez-ta jabego pribaturik ere. Etxe-gintza nazionalizatuta eta neka-zaritzza kolektibizatuta daude. Osasungintza eta botikak, ira-kaskuntza bera ere, doakoak eta eskuragarriak dira. Apaltasuna bertute da, eta estatus soziala erakusten duten sinboloak ba-rregarri uzten dira. Kasu, baina, Tomas Mororen “Utopian” es-

klaboak badaude, adulterioa es-klabotza forma zorrotzenarekin zigortua baitago.

## Itsasoa, limonada?

Mororen “Utopia” ez da asper-menarena, kolore gabeziarena, gizarte utilitaristarena. Aitzitik, berak deskribatu “utopiarrek” egunean bederatzi orduz egiten zuten lan (eta duela bost mende, hori alimaleko aurrerabidea zen). «Lan egiteko, lo egiteko eta jateko» erabiltzen ez zen denbo-ra pertsona guztiek nahi bezala erabil zezaketen. XIX. mendeko erradikalek berea egin zuten le-loa, hots, “zortzi ordu lan, zortzi ordu lo, zortzi ordu nahi dugu-

{ analisia } Mikel Zubimendi

# Bost mende betez, «Utopia»!

rritutako gizarte baten ideala as-koz zaharragoa da, bai. Zentzu batean, Morok bere “Utopia” la-narekin jada existitzen zen ale-giazko lurralde baten inguru-mariak deskribatu baino ez zituen egin. Platonen Errepubli-karen ertzetik hasi eta Erdi Aro-an oparotasunaren Jauja (edo frantsesezko *Pays de Cocagne* edo ingelesezko *Land of Coc-kaigne*) lur mitologikoko men-dietaraino zihoana.

Zorioneko jendeak popula-tzen zuen Utopia uharte moder-noa. Ez zen, ez da, nabigazio ma-petan ageri. Anberesen ezagutu zuen marinel galdu baten aho-tik jasotzen du Morok haren be-rri, eta ipuin batean eman zuen, Rafael Hythloday fikziozko na-bigatzaile eta narratzailearen hi-tzekin hain zuzen.

Marabilla bat da “Utopia”, en-tretenigarria eta asko irakasten duena. Segur aski Errenazimen-duko obrarik aldarrikatueneta-rikoa izango da. Polemikoa, an-biguoa eta inspiratzailea da oso, inor indiferente uzten ez duena. Besteak beste, bere ipuinezko

Errealitatea ez dago soilik izan badenaz egina, oraingoz potentziala den eta egunen batean izan daitekeenaz ere osatuta dago. Ametsak ezin gauzatuzkoak eta helburuak lorrezinak badira... entzun! Hori ez da ametsok ez maitatzeko arrazoi! Ai, ze tristeak liratekeen (askapenaren) bideak izarren presentzia magikorik ez balego!

narentzat”, aspaldi aurreratu zuen Morok.

Utopia uhartean ez dira ezber-dintasunak ezabatzen, ez da mundu osoki monokromatiko bat, «ez da musikarik gabe afal-tzen». Sentzilloki, “utopiarrek” gabezia ekonomikorik gabe bizi direlako, eta, hala, osoki libreak direlako.

“Utopia” hitza, hiztegiaren arabera, gizarte perfektuaren in-guruko uste irrealista da, lortu nahi baina ezin dena, hau da, “errealitaterik gabea”. Irismen luzeko gogomira utopikoa due-na, utopia zalea, beraz, idealiste-gia da, ameslariagia, gauzaezi-nezko kontuetan temati hutsa. Mundua alda dezakeen ideia le-gez, sarri egozten zaio hori uto-piari, askotan karikatura merke-ak medio, utopia deuseztatzea, aldaketa barregarri uztea xede.

“Utopia” liburua zientzia fik-zioa da, egia da, bai. Eta literatur genero berri bati bidea eman zion. Egia da, halaber, nolabait, bi motako utopiak daudela. Beti inauterietan den gizarte mota baten utopia dago, non lan egin

beharrean bufoiek animatuta-ko banketeetan majo jan eta edaten den, ilusentitiek egunsentiraino larrua jotzen den, itsasoa limonada bilakatzeraino. Badira ere, badirenez, utopia austeroagoak, non dena usainik gabea eta antiseptikoa den. Mororena, baina, utopia burutsuagoa da, landuagoa, puritanoagoa, arrazionalagoa eta libidinalagoa.

## Lehen antiutopikoa?

Tomas Moro legelari eta moraren filosofo izan zen. Baita katoliko askorentzat gizon onaren kintaesentzia ere. Doktrina katolikoaren arabera, egiazko fedearen defendatzaile gorenaren izan da. Agian, historia sinpleki adieraziz, Ingalaterrako Enrike VIII. erregearen eta Aragoiko Katalina bere emaztearen arteko dibortzioa onartu ez eta Eliza Anglikanoaren sorrera ekarri zuen Eliza Katolikoaren batasunaren zisma arbuizatzeagatik, bere kontzientziaren aginduari uko ez



egiteagatik, moztu zioten burua 1532an. Zentzu horretan, kontzientzia eragozle eta insumisioen aitzindari izan zen.

Morok, baina, disidentek ere hil zituen. Eta bai, paradoxikoa da oso haren kasua. Bere heriotzarekin, martiri politiko eta erlijioso bilakatu zen, eta, geroago, naziekin eta Mussolinirekin ulerkorra izan zen Pio XI.a aita santuak berak kanonizatu egin zuen. Bere ibilbide politikoa, baina, erreformatzailerik protestanteak jazartzen ere aritu zen Moro. Normala da, normala denez, berez, erreforma protestantearen jarraitzaileek munstro bat bezala sentitu eta deskribatzea Moro.

Izan ere, Mororentzat, orduko protestanteak egungo “terrorista” hitzarekin deskribatzen den pareko zerbait izan ziren. Espiritualtasuna beren modura sentitzen zuten pertsonak baino, ongizate komunaren desestabilitatzaile biolentoak ziren Mororentzat. Antza, sei exekuzio agindu eta

tortura saio beldurgarriak zuzendu zituen ekin-tzaile protestanteen aurka.

Zentzu horretan, autore askotxok adierazi moduan, lehen utopiko handia lehen antiutopikoa ere izan zela kontsidera daiteke. Hain zen kontraesankorra bere arrazionaltasunaren eta fedearen arteko talka! Bere bizitza sakrifikatzeraino kontzientzia eragozle, baina baita lord-kantziler gisa herejetzat hartzen zizutzenak heriotzaraino jazartzeko inolako gupidarik gabe.

Nola da posible bere bizitzan eta ibilbidean hain gordinki egitea *realpolitik* delakoaren alde eta gero “Utopia” bezalako pieza bat erditzea? Nola hartu behar dugu Moro? Politikarien santu katoliko gisa? Inposatzaile bihozgabe doktrinario gisa? Ala denbora zail eta arriskutsuak bizi izan zituen printzipiodun pertsona bezala? Zaldun komunista gisa? Modernoa ala atzerakoia izan zen?

Bakoitzak bere erara baina zentzu batean edo bestean de-

nek santutu izan dute Moro. Komunistek, liberalek, katolikoek. Denek hartu dute ikono gisa, santutu beharreko ekin-tzaile erradikal gisa. Familia utopiko patriarkalaz idatzi zuen heinean, matxista setatia ote zen? Zein Moro hobetsi behar dugu? Utopiaren zein zentzurekin geratu behar genuke?

## Ezker muturrekoa?

Mororena, argi eta garbi, gizarte ideal baten gaineko ikuspegi ilustratua izan zen. Erdi Arotik Aro Modernorako zubi izandako Errenazimendua eraiki zuten sentisibilitate ezberdinak barnebiltzen zituena. Bere lagun min eta XVI. mendeko humanista ospetsuena izandako Erasmo Rotterdamgoarekin batera ideia komun bat defendatu zuen: pertsona osasuntsu eta buruargi mantendu ahal izateko, bereziki garai nahasietan, ezinbestekoa da eromen eta satira puntu bat izatea. Eta horretan, moderno asko baino modernoago izan zen.

Ezkerrean, Tomas Moro legelari, idazle, teoriko, erradikal, martiri eta santuaren erretratua. «Utopia» liburua mundua gehien aztoratu duten liburuetariko bat izan da zalantzarik gabe, hainbat eztabaida, diskordia, gerra eta iraultza biziki inspiratuz. Bertan jasotako ideiek irakurle asko argitu, probokatu eta kontsolatu dituzte. Ezkerrean, Morok irudikatu zuen Utopia uhartea. Aspirazio hutsa besterik ez zen lekua irudikatzean, mundua aldatzeko zinez erradikala den kontzeptua sortu zuen.

GAUR8

Letren munduko gizon-ema-kumeentzat, artista eta bufoientzat, garai hartako Europa lotiaren kontzientzia astintzeko bidea zabaldu zuen Tomas Morok, Errenazimenduko beste jenio askok bezala. Ez mai-luaren danbatekoekin, baizik eta irribarre eta galdera asko sortzeko gai diren lerro sarkorren bitartez.

Historian zehar gizakien imajinazioa bereganatu duen ideia bati izena eta forma emate aurrenekoa izan zen Moro. Mundu hobe bat imajinatzea posible denez, berau sortzeko tresnak gure esku direla gogorarazi zigun. Eta gisa horretan, aspirazioaren leku imajinatua pintatuz, mundu berri baten alde borrokatzen direnei zinez kontzeptu erradikal eta indartsua eskaini zien.

Moro bizi izan zen garaian Ingalaterrako kantziler eta noble gutxik salatu zuen berak bezain irmoki jabego pribatua, nolabaiteko komunismo bat aldarrikatuz. Orduko ordena soziala “aberatsen konspira-

zioa” bezala deskribatu zuen. “Utopia” lanean, aberats horiek «diruzale, eskrupulurik gabeko eta ezgai» gisa deskribatu zituen. Harrigarria da “Utopia” liburuak ze puntutaraino dirudien ezker muturreko lana. Gaur egungo ezkertiar askorentzat ere, agian, militanteegia izan daiteke.

Liburu bakoitza mundu bat da, eta liburu denen artean mundu honi forma eman diote. Baina, zentzu argi batean, Karl Marx beraren “Kapitala” liburua kaleratu baino 350 urte lehenago Morok hitz egiten zuenean, Marx beraren hitzekin aritzen zela pentsa daiteke. Historiaren zehar oso liburu gutxik aztoratu dute mundua. “Kapitala” horietako bat da, eta, oraindik agian gehiago, “Utopia”. Azken hori, garai ustel eta arriskutsu baten kontrako eraso izan zen. Gure burua eta besteak nola ikusten eta pentsatzen ditugun inguruko ikusmoldea aldatu zuen.


Eztabaidak inspiratu ditu, diskordiak, gerrak eta iraultzak

piztu. Bidea argitu du, jendea haserretu, probokatu, kontsolatu. Askoren bizitzak aberastu ditu, eta, beste askorenak, suntsitu. Zibilizazioak astindu ditu eta gizakiok egun garena izatera bultzatu gaitu.

## Denek maitatua

Munduan izan diren literato eta pentsalari handiekin gertatu bezala, zaila da oso modu sinplean Tomas Moro klasifikatzea. Era berean, baina, paradoxikoa da zenbat jendek, ideologikoki zein ezberdin eta zein puntutaraino goratzen duten Moro. Den-denak maite eta aldarrikatzen dute.

Bizpahiru adibide jarrita, adierazgarria da oso kontrastea. AEBetako Thomas More Society eskuin muturreko erakundea hor dugu, “erlijio askatasuna” aldarria lelo hartuta. Haientzat, Tomas Moro gizarte bat antolatzeko ezinbesteko zutabe izan beharko litzatekeen kontzientzia askatasunaren bultzagile baino, heretikoak ja-



zarri zituen buruzagia da. Nazien eta Mussoliniren aldeko hitzak historiarako utzi zituen Pio XI.a aita santuak kanonizatu zuen Moro, eta Eliza Katolikoak “Politikarien santu patro” bilakatu zuen. Bestalde, Leninek berak espresuki hala eskatuta, Marx eta Engelsekin batera “Langileriaren Askapen Borrokaren Lider eta Pentsalari Gorenaren Memorialean” leku egin zitzaion.

Karl Kautskyk “Thomas Morus und seine Utopie” obran aurreratu bezala, Moro XIX. eta

Oscar Wilde idazlearen ustez Utopia jasotzen ez zuen mapamundiak ez zuen ikusterik merezi, lur berri eta hobe baterantz bidaia hasi aurretik gizateriak beti abiapuntu duen portu bakarra delako. Leninen aburuz, aldiz, Marx eta Engelsen pareko langile askapenaren aldeko pentsalaria zen Moro, eta, hala, sobietarrek inauguratu zuten lehen monumentuan berari aipamen berezia egitea agindu zuen dekretuz.

GAUR8

XX. mendeko sozialismoaren zuhaitz genealogikoan kokatu behar da. Nahiz eta, nolabait esatearren, Morok komunismo kristau primitiboa dei geneza-keena aldarrikatzen zuen, hau da, Nazareteko Jesus berak praktikatu eta pertsonifikatutakoa hain zuen. Izan ere, Mororentzat, bizitza komunala zeruko jaunak ezarritako lege naturala zen, sinestun orenen horizonte eta bertute gorena- ren adierazle.

Literaturan, berriz, Eduardo Galeanotik Alfonso Sastrerai-

no, asko eta asko izan dira utopiaren inguruan jardun direnak. Sozialismoaren ikuspegi utopiko eta anarkista zuen Oscar Wilde irlandarrak adibidez, “Gizonaren arima sozialismoaren pean” liburu ederrean, «aurrerabidea utopiaren gauzapena» baino ez dela dio.

## Profeta bat?

Hipotesi bezala, demagun Marx profeta bat izan zela. Profeta izatekotan, baina, ez zen izan giza perfekzioan interesa zuelako, ezta etorkizuna ikusteko ahalmen mirakulutsua zuelako ere. Marxek irudikatutako gizarte postkapitalista ez litzateke psikopatez, harrapariz edo aprobetxategiz salbu. Etorkizunaren barrunbeak ikusi baino, langileei kontzientzia, gosetuei euren jana irabazteko bitartekoak eta im- migranteei ongi etorria eman gabe gizarte gisa etorkizunik ez dugula izango zioen. Edo izatekotan, oso desatsegina eta gogorra izango zela.

Izan ere, Leninek beste hitz batzuekin zioen gisa, pentsamendu utopikorik behar ez den leku bakarra Utopia da, edo, Oscar Wildek zioen bezala, munduko mapa orok ezinbestean izan behar duen leku bakarra Utopia da, etorkizunari begiratzeko mira bat izanik orainean amets egiteko prozesuan garrantzi osoa bereganatzen baitu.

Esperantzarik gabeko, edo esperantzarako tarte gutxiko garai ilunotan, zein da utopiaren esanahia? Zer inspiratzen digu utopiak? Gizakion izatearen gainean, gizatasunaren berezko kontraesanen aurrean, hots, desesperantza eta esperantza, muga eta mugagabetsuna, gabezia eta gehiegikeria, oraina eta geroa, justizia eta injustizia... nola mantendu utopia pentsamenduaren eta eztabaidaren abangoardian?

Ez da ez lan erraza. Bizi dugun garai nahasian errealitate distopikoak ageri-agerikoak baitira maila ekonomiko eta sozialean. Ingurumen arazoez,

gizarte kohesio ezak, gizateria-  
ren kausa komunek edo insti-  
tuzio politikoak astintzen di-  
tuzten krisi ezberdinek argiro  
erakusten dute hori. Gainera,  
tamalez, errealitateari alterna-  
tiba bideragarri, sinesgarri eta  
inspiratzaileak eskaintzerako  
orduan, imaginario utopiko  
tradizionalek bere ortopediak  
eta gabeziak garbi erakutsi di-  
tuzte azkenaldian.


Testuinguru ezkor honetan,  
alternatiba bat eraikitzeke,  
utopiaren desiraren egituratze  
arrazional bat posible al da?  
Zentzu kritikoz eta eraikuntza  
ikonoklasta batez armaturiko  
eta utopiaren baieztatze edo  
gaitzespen kaskarinetik hara-  
go, praktika eraldatzaileak  
markaturiko mugimenduak  
erditzea posiblea ote? Galde-  
rak, baieztapen janzkerak.

Agian, gure sistema euren  
burua errealistatzat jotzen du-  
ten ameslariak gidatzen dute.  
Edo agian, ez. Baina duela bost  
mende klaserik eta jabego pri-  
baturik gabeko gizarte bat iru-  
dikatzeko, non Platonen Errepu-

blikaren ereduari jarraiki haur  
guztiak Estatuak jarritako bi-  
tartekoekin berdintasunean  
hezten diren, potentzial iraul-  
tzaile itzeleko ideia dela ezin  
daiteke ukatu. Izan ere, Utopia-  
ko gizarte idealean, Estatuak eta  
zuzenbidea ez dira albora uz-  
ten. Aitzitik, eraikuntza sozia-  
lerako tresna iritzita, oinarri fi-  
losofiko guztiz ezberdinetatik  
abiatuz, boterearen bidegabe-  
keriekin eta ezberdintasun so-  
zialekin amaitu nahi da. Eta  
hori oso ideal indartsua da be-  
netan.

## Gatz eskukadak

Bestalde, utopia genero litera-  
rio bat ere bada. Baudelairek  
konposatu paradisu artifizial  
haiek bezala, fikzioaren esku-  
tik autore konprometitu eta  
kontengaitz askok eta askok  
landutakoa. Literaturaz gain,  
utopia ere ideia politiko, zien-  
tifikoa, ekonomiko eta kultural  
zinez indartsua da. Eta hain  
zuzen horregatik, izan sozialis-  
ta ala liberal, izan utopiko ala



errealista, mendeetan zehar,  
zorte ezberdinarekin, saio uto-  
piko franko izan dira.

Morok duela bost mende gai  
sozialak, filosofikoak eta fanta-  
sia nahastu zituen lege, ares-  
tian aipatu bezala zaila da le-  
hen utopia historian kokatzea.  
Gizakia gizaki denetik, mende-  
ak eta mendeak baitaramatza  
gizarte idealak irudikatzen.

“Distopia” hitza, nolabaiteko  
antiutopia dena, 1868an John  
Stuart Mill parlamentari inge-  
lesak erabili zuen aurreneko.  
Utopiaren eztizko eta limona-

Utopia, inon ez den lekua  
eta historian zehar askok  
ordena sozial orekatu ezin  
gauzatuzkoa, mundu  
errealarekin kontrajarria  
den paradisu ukiezina  
izendatzeko erabilitako  
kontzeptua. Gizarte fikzio  
desiragarri horren  
aurkako kontzeptua, hots,  
distopia, ere ugari dabil.  
GAUR8

dazko irakurketen gainean bo-  
tatako gatz eskukada da. Desira  
utopikoari kontrajartzen zaion  
antsietate distopikoa.

Ordutik geroztik, bere baitan  
zitala den gizarte fiktizioa  
izendatzeko erabili izan da.  
Ugari-ugariak dira literaturan,  
zineman edo komikietan dis-  
topiaren erreferentziak. Oro  
har, mundu imaginatu zitala  
dakarkigute, jendearen eskubi-  
deen sakrifizio kolektiboaren  
eskutik helburu maltzurak  
lortzeko. Joera pesimista eta  
eszeptikoa da, errotik, aurrera-

bide sozial baten eskutik seku-  
la etorriko ez den etorkizuna-  
ren ideia.

Agian, denetan autore disto-  
pikoena Friedrich Nietzsche  
dugu, bere ukitu ilun eta estilo  
sakon paregabearekin. Edo  
Thomas Hobbes, gizakia giza-  
kiarentzat otso dela esatean,  
etorkizunaren gaineko begira-  
da ezkor bat planteatzeaz gain,  
ikuspegi distopiko bat argiki  
landu zuena.

Literaturan kontaezinak dira  
obra distopikoak, literatura  
apokaliptiko izenpean ere eza-  
gunak direnak. Besteak beste  
aipatzekoak dira Jonathan  
Swiften “Gulliverren bidaia”,  
George Orwellen “1984” edo Al-  
doux Huxleyren “Bai mundu  
berria” eleberriak, edota zine-  
mara eraman den Alan Moore-  
ren “V for Vendetta” komikia.

## Ez gaude galdurik

“Utopia” liburuaren handita-  
suna ez datza hainbeste Utopia  
uhartean, bertako gizartearen  
alderdi berritzaileetan baizik.

Jabegoa komunala da, etxebizi-  
tza eskubide unibertuala eta  
betebehar publikoa, osasun-  
gintza doakoa, biztanle guztien  
artean berdintasuna da lege,  
eutanasia edo dibortzioa bai-  
menduta daude, erlijio eta  
kontzientzia askatasuna onar-  
tuta daude eta agintariak jen-  
deak hautatzen ditu. Dudarik  
gabe, Morok aurkeztutako  
ideiak garai hartako pentsa-  
menduarekiko apurtzaileak  
izan ziren oso. Platonen “Erre-  
publika” obraren baimenare-  
kin, liburu hau izan zen gizarte  
komunista batez modu irekian  
hitz egin zuen lehena.

Politika mundu berri bat  
eraikitzea edo posible denaren  
arte ote den hemen eztabai-  
datzeke, gauza bat argi dago:  
utopiarik gabe galdurik gaude.  
Oraina beti izango baita tristes-  
ta hobia den zerbaiten esperan-  
tzarik ez badugu. Horregatik ez  
dugu utopia borobil eta amai-  
turik desiratzen, irudimena eta  
esperantza bizi-bizirik izanik  
guztiz aktibo mantenduko den  
mundu hobe bat baizik.

# TXEKIAR ERREPUBLIKA

Herrialdearen izena laburtzeko proposamenak eztabaida eragin du

 **JENDARTEA** / Jan Marchal (AFP)

«Txekiar Errepublika» da herrialdearen izen ofiziala, baina arazo ugari eragiten ditu eta deitura laburrago baten inguruko proposamenak azaldu dira, eztabaida eraginez. Irakurleak askotan ikusiko zuen «Txekia» hitza izan daiteke konponbidea, baina bestelako ideiak defenditzen dituztenak ere badira Erdialdeko Europako herrialdean.

**T**xekiar Errepublika” ala “Txekia”, besterik gabe? Herrialdea era adiskidetsuan Eslovakiatik banatu zenetik, bertako herritarrek jakin nahi dute zein den herrialdearen izenaren laburpen egokia.

“Txekiar Errepublika” izenaren bertsio motz ezberdinak ikusteaz nazka-nazka eginda, agintari batzuek, Milos Zeman presidenteak besteak beste, apirilaren erdialdean jarri zuten

abian NBE Nazio Batuen Erakundeak izenaren bertsio sinplifikatuak hizkuntza ezberdinetan erregistra ditzan helburu duen prozesua.

Mahaiaren gainean den proposamenaren arabera, herrialdearen izena modu formalean erabili behar denerako gomentatzen da *Czechia* erabiltzea ingelesez, *Chequia* espainolez, *Tchéquie* frantsesez eta *Tschechien* alemanez, txekierazko *Cesko* itzultzeko. Euskaraz “Txekia” izango litzateke. Proposa-

«Ez nago ados ‘Txekia’ izenarekin», adierazi du Karla Sleshtova Eskualdeen Garapenerako ministroak. Bere ustez, herrialdea Txetxeniarekin nahasteko arriskua dago.

GAUR8

mena aurrera aterako da Gobernuak oniritzia ematen badu eta hori maiatzean bertan gerta daiteke, hedabideen arabera.

«‘Txekiak’ ez du ‘Txekiar Errepublika’ ordezkatzeko», irakur daiteke Atzerri Ministerioaren webgunean ([www.mzv.cz](http://www.mzv.cz)). “Frantzia” eta “Frantziako Errepublika” izenen arteko loturaren tanterakoa izango litzateke, iturri horren arabera. Edonola ere, gaia ez dago oraindik batere argi eta Gobernuako kideen artean ere eztabaida bizi-bizirik dago. «Ez nago ados ‘Txekia’ izenarekin», adierazi zuen Karla Sleshtova Eskualdeen Garapenerako ministroak. Bere ustez, hitz hori erabilita herrialdea Txetxeniarekin nahas daiteke, izan ere, *Chechnya* esaten zaio ingelesez Kaukasoko herrialdeari.

## GEORGIA ETA GEORGIA

«Erdipurdiko geografia-ezagutzak ezin dezake saihestu herrialde baten izenaren erabilera egokia», erantzun diote argudioari Atzerri Ministeriotik.

Tankerako adibide batzuk ekartzen dituzte gogora: Irak eta Iran, Niger eta Nigeria, Eslovakia eta Eslovenia... Hitz bera bi leku ezberdin adierazteko ere erabiltzen da, esaterako, Georgia, Kaukasoko herrialde bat izateaz gain, Ameriketako Estatu Batuetako estatu bat ere bada.

Txekiarrek atzerrira joaten direnean hizkuntz arazo ugari izaten dituzte. Ivana Schachnerova Italian bizi da 1989az geroztik. Berak nahiago izaten du «Pragako» dela esatea. «Txekiarra naitzela esatean (*ceca* italieraz), guztiek laguntza eskaintzen didate kalea zeharkatzeko». Izan ere, italieraz *cieca* hitzak “itsu” esan nahi du.

Txekiar Errepublikan bertan (izen hori erabiltzen da 1993az geroztik), ez dago izen ofizialaren laburpen bat lurraldeari deitzeko. XI. mendean, 1061etik 1092ra bitarteko Vratislav II.aren agintaldian, Bohemiako dukerria erresuma bihurtu zen; hala, Bohemiako Erresuma (*Reg-*





Goiko irudian, «Czechia» hitza daramaten kamisetak salgai Pragako denda batean, apirilaren 27an. Eskuineko hiru argazki txikietan, goitik hasita, garai bateko Bohemiako Erresumaren armarrria, Moraviakoa eta Txekiar Silesiakoa.  
Michal CIZEK | AFP

*num Bohemiae*) izena hedatu zen; XVI. mendean, berriz, habsburgotarrek Bohemiako koroa eskuratu zuten eta 1918tik aurrera Txekoslovakiaren zati bihurtu zen. 1993az geroztik deitu zaio Txekiar Errepublika.

Gaiari buruzko ikerketak buruhauste bihurtzen dira Erdialdeko Europako leku horretan. Elezaharrak dio herrialdea Cech izeneko arbaso mitiko batek sortu zuela, Bohemia (*Cechy* txekieraz, 6,5 milioi biztanlerekin), Moravia (*Morava*, hiru milioi) eta Silesiaren (*Slezsko*, milioi bat) zati bat elkartuta.

Makina bat proposamen egin ziren herrialdearen independentziaren garaian. Horietako batek zioen herrialdeari *Morce*

deitu behar zitzaiola, hau da, *Morava-Cechy* izenaren akronimoa, baina hitz horrek txekieraz “akuri” ere esan nahi du. Ideia baztertu egin behar, beraz.

Azkenean *Cesko* hitza aukeratu zuten. Gramatikari dagokionez egokia da, baina batzuek diote hitz hori artifical samarra dela. Vaclav Havel Txekiar Errepublikako lehen presidente zenak berak ere arazoak ikusten zizkion hitzari, “barea” ekartzen ziolako gogora.

#### «CZECOMORAVIA»

Ez ziren hor amaitu arazoak. Esaterako, herrialdeak dituen eskualdeei autonomia gehiago eman nahi dietenek esaten dute hitz horrek –*Cesko*– Moravia eta

Silesia ahaztu egiten dituela. Ondrej Hysek Moraviarrak alderdi politiko txikiko burua da. Berak proposatzen du herrialdeari ingelesez *Czechlands* edo *Czechomoravia* deitzea.

Parlamentuan ordezkariarik ez duen indar politikoaren iritziz, “Txekia” hitza eta tankerakoak «moraviarron nortasunaren eta Txekiar Errepublikako Konstituzioaren aurkako eraso dira».

Michaela Lagronova Atzerri Ministerioako eledunak gogorazi du herrialdeko agintari batzuek egindako proposamenak Gobernuaren argi berdea lortu behar duela, eta hori maiatzean gertatzea espero dela. Ondoren bidaliko litzaieke proposamena Nazio Batuei.

Kristina Larischova gai honez arduratzen den diplomazialariak nabarmendu du Txekiar Errepublika salbuespen bat dela European, «garatutako estatu demokratikoen arteko anomalia bat», herritarren arteko elkarrizketetan izenaren laburpenik ez duelako.

«Zaila da gaiari buruz erabaki bat hartzea geure hizkuntzan, eta zailagoa oraindik atzerriko hizkuntzatan», adierazi du Karel Oliva Zientzia Akademiako Txekiar Hizkuntzaren Institutuko zuzendariak. «Azken finean, herritarren erabilerak hartuko du azken erabakia, Ministerioak edo beste erakunderen batek esaten dutenari zain egon gabe», erantsi du adituak.



**Unai Fernandez de Betoño - @UnaiFdB**  
Arkitektoa

## Euskararen txertaketa hirigintza tresnetan

**E**ragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) bide egiten ari da. 2014ko “Lurraldea eta hizkuntza” lehendabiziko kongresuan (GFA, Kontseilua, UE-MA, UEU) tresna horren beharra aldarrikatu ondoren, hirigintza proiektuen hizkuntza kalteak aldeztetik aztertzeke, bi mugarri legal jazo dira jada: batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere proiektu eta planetan ELE aplikatzeko derrigortasuna arautu zuen 2014ko Euskara Planean, eta, bestetik, Udal Legeak EAEko hirigintza proiektu eta planen eragin linguistikoa ebaluatzeke derrigortasuna ere ezarri berri du.

ELEk hirigintza proiektuen eragin linguistikoak ahalik eta modu objektiboenean neurtzen ditu, gaika antolatutako (mugikortasuna, ekonomia, azpiegiturak, soziokultura eta demolinguistika) galdetegi zorrotz baten bidez. %50etik goragoko euskara indizearekin 3. eta 4. gune soziolinguistikoetan dauden udalerrien antolakuntza espazialerako ezinbesteko tresna prebentiboa da, hortaz. Udalerri euskaldunak bereziki hauskorrak direlako, azken 30 urteotako euskararen bilakaera negatiboak frogatu bezala: soilik EAEn hamazazpi arnagunek 4. gune soziolinguistikoa utzi dute.

**Euskal hiztunen kopuru osoaz gain, berebiziko garrantzia duelako euskaldunen dentsitateak, hots, hiztun kopuruak kilometro koadroko.**

Idea horretan oinarritzen da arnagune geografikoen teoria. Begirada zertxobait altxatzean, gainera, berehala ikusten da arnagunek multzoak ere osatzen dituztela haien

artean, alegia, dentsitatearen kontzeptua ez dela soilik udalerri mailakoa; eskualde mailakoa ere badela. Eta, eskala horretan, dentsitatea bezain garrantzitsua da trinkotasuna, hots, arnaguneen jarraitutasuna, lurgune euskaldunen artean *continuum* bat osatzea.

**Horregatik da hain funtsezkoa euskara lurralde antolakuntzako eta hirigintzako lege eta planetan ere txertatzea. Euskara espazialki ere babesteko, antolatzeke eta kudeatzeko beharra dugulako, benetan suspertuko badugu.** Beraz, euskara politiketan sakontzen jarraitzeaz gain, lurralde politiketan ere jardun beharko dugu. Horretarako, oraintxe bi aukera hobeezin dauzkagu EAEn, hilabeteotan bai 2006ko Lurzoruaren Legea bai 1997ko Lurraldea Antolatzeke Gidalerroak berritzen hasi baitira. Biek ala biek barne hartu beharko lukete ELEren beharra, tokiko komunitatearen garapen iraunkorra integralki (baita kulturalki ere) sustatuko badute.

Gidalerro berriek, halaber, arnaguneen berezitasunak ondo azertu beharko lituzkete. 2016 honetan bertan onetsi den egoitza-kuantifikazioak udalerri txikiengan bereziki etxe gehiago planifikatzea proposatzen baitu, arnaguneei kalte berezia eraginez, bertako merkatua «zurrunagoa» delakoan. Horregatik, berezitasun geografikoetan hobeto sakontzeko, Euskararen Lurralde Plan Sektorial bat ere garatu beharko litzateke berandu baino lehen, euskararen eta lurraldearen gaineko politikak erkidego osoaren eskalan ego-kiro pentsatzeko eta taxutzeko. Euskara babestea eta zabal-tzea helburu. •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

# Ireki zuloa, mapari erliebea eman, bildu cromlechera

**R**osa Luxemburg handiari aspaldi irakurri nion iraultza dela gerra mota bakarra non garaipena soilik porrot sorta luze baten bidez eskura daitekeen. Izatez, iraultza gerra mota bat ez ezik bizitzeko modu bat ere badela esango nuke, baina tira. Kontua garaipena lortzeko zenbat porrot falta zaizkigun kalkulatzea da, beharrezkoak diren porrotak eta erremediorik gabeak identifikatzen jakitea. Edo, beste hitz batzuekin esanda, lortzen diren garaipenen balorea aitortzea, etekina ateratzen jakitea. Izan ere, hain azeleratuak diren garai historiko hauetan, hainbeste hondamendi, erorketa eta gertakari hilgarri aurkezten dituen zalaparta apokaliptiko honetan, aurrerabide kolektiboa ulertzea eta aitortzea ez da ez batere ariketa erraza. Erosoago baikaude zentzu tragikoa azpimarratzen, pasio baxuenak xaxatzen, marmar betean gozo.

Iruditzen zait ez dakigula herri bezala lortzen ditugun aurrerapausoak baloratzen. Txikikeriei, bigarren mailako kontraesanei, garaipena lortzeko ezinbesteko ditugun porrotei edo nahitaez hartu beharreko hainbat erabakik eragindako minei jaramon handiagoa egiten diegula. Hori, adibidez, Ipar Euskal Herriko elkargo bakarra lortzeko martxan den prozesuarekin egiten da ikusgarri. Lortutakoa ez da ospatzen, ez zaio balorerik aitortzen, duen garrantzi eta potentzialtasuna apenas ageri da plaza publikoan. Eta niretzat, *larreostiakoa* da Iparraldeko anai-arrebak lortzen ari direna. Handia, benetan oso handia. Ez da berri on soila, gure herriaren desegituraketarekin jarraitzea baino hobea den aurrerapausoa da. Ados, ez dut nik Ipar Euskal Herria barnebilduko duen egitura hori sobera goretsiko, ez ditut nik dituen arriskuak gutxietsiko. Baina, aizue, natural poztu eta sekulako lorpena dela esaterik badagoenez, esan dezagun ba beldurrik gabe! Izan ere, 230 urte eta gero, gure nazioaren mapari erliebea ematen ari gara, noiz eta garai nahasi hauetan. Gure herriaren ikusgarritasuna, zentraltasun distiratsua, lortzeko bidea eraikitzen ari gara. Hainbeste euskaldunek lepoan zintzilik eraman duten mapa, bihotzean balazo garden bat balitz moduan zizelkatuta, mundua begiratzeko leiho hartuta eta munduan gure lekua

aurkitzeko kabi eginda eraikitzen ari gara. Bai, Euskal Herriko mapa erliebe osoa ari da hartzen. Ezberdintasunak ezberdintasun, Lizarra-Garazin Udalbiltza edo prozesu eratzaile hartako ganbera legegileekin lortu nahi zen hori, orain ari da gauzatzen, gure sudur puntan eta begi bistan, euskaldun guztion zorionerako.

Maparena handia, zinez oso handia den lorpena da euskaldunontzat. Gure profeta Oteizak bere hitzekin esango lukeen bezala, gure cromlecha berreskuratzearen parekoa, gure mairu-baratza geureganatzea da, herri bezala armatzeko dugun gure zulo metafisikoa irekitzea. Izan ere, euskaldunok ugaztun garen heinean, gure komunitatearen premia dugu, handi-mandien mundu petral honen tiraniatik, erlamek legez, gure txikitasunarentzat ihes-planak errutea. Eta gutariko asko ez bezala, seguru Oteiza, dagoen tokian dagoela, gure mapak hartu erliebearekin pozarren sentituko dela. Horixe baietz!

Hainbeste aberkidek lepoan zintzilik, bihotzean balazo garden bat bezala, mundua begiratzeko leiho edo munduan lekutzeko kabi hartu duten Euskal Herriko mapa bere erliebe osoa hartzen ari da

Gu gara garena, hori da identitatea. Niretzat, kontu sentzilloa da, alegia, zerekin identifikatzen garen. Besteak halakoak, ba gu holakoak. Sinbolikoki eta imajinario mailan besteekiko harreman horretan mamitzen da gure identitatea. Batzuek diotenez krisian omen dugu euskal identitatea. Normala ere bada, bizilegezkoa, identitatea aldakorra eta eraldatzailea baita, krisia baitu aurrerabide. Krisia da identitatearen existentziaren portaera normala, are iraultza digital honetan, non denbora eta espazio mailako errotikako aldaketekin batera, oraindik ere, mitoak edo marka irudiak agintzen duen.

Independentzia gehiagorako abertzaletasun gutxiago behar dela dioen tesi filosofikoaz beste batean jardungo dugu. Bitartean, eutsi garen horri! Hori dugulako aterpe, gotorleku, gutxietsi behar ez den balore seguru. Eutsi horri eta segi aurrera, tonua hartzen eta txisparekin. •

# GASTEIZKO AZKEN BEIRAGILEAK

## Iraungiz doan ofizio baten historia gorabeheratsua eta artisauon kezkak

📁 **ARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

**A**rgiaren artea. Hala esan izan zaio beirateari. Beste edozein artelanean, argia islatu egiten da; beiratean, berriz, argiak zeharkatu egiten du obra. Argirik gabe, beraz, beira hutsa da, gehienez ere espazio baten itxitura. Argiak gauzatzen du artelana, eta haren aldaketa bakoitzak desberdin sumarazten du. Beiratea bere osoan gozatzeko, egunsentia eta ilunabarra oso egokiak omen dira. Esan liteke lan partekatua dela, egileak eta argiak partekatua, alegia.

Arte galdua ere esaten zaio beirateari, mendeetan zehar askotan gainbeheran egon izan da eta; are, batzuetan, ofizioa ia desagertuta ere. Tradizioz, tenplu erlijiosoetan erabili izan da, baina XIV. mendean eraikin zibiletan ere erabiltzen hasi ziren. Egun ere erabiltzen da eraikuntzan, baina, artisautzak oro har bezala, ofizioak, Hego Euskal Herrian behinik behin, galduta ez badago ere babes eskasa du.

Gasteizko bi beiragilek gidatu dute GAUR8 beirateen mundu ezezagunean zehar, Mikel Delikak eta Inazio Zarketak, Arabako hiriburuko azken artisau beiragileek, hain zuzen.

Ñabardura bat egin du Mikelek bere solasaren hasieran: beirateak ez dira «koloretako kristalak», maiz hala esaten bazaie ere, «kristalak naturan baino ez daude eta». Kristalak egitura molekular ordenatua du; beira, aldiz, amorfoa da, eta gizakiak sortua. «Bohemiako kristala» deitutakoa ere beira da. Berun kantitate handiagoa du, gardentasun handiagoa lortzeko. Beira antzina sortu zuten; seguruenik feniziarrek erabiltzen zuten, Iñaxiok dioenez.

### BEIRATEAK EGITEKO TEKNIKAK

Beiratea ez da beiraz egindako edozein osaketa, hura artelana izanda ere. Labur esanda, beirazko hainbat zati mihiztatuz osatutako pieza bakarra da. Teknika bat baino gehiago erabiltzen dira horrelako artelanak egiteko. Zaharrena beruneztatzea da. Beirazko zatiak “H” itxurako

Beiratea, arte galdua, Gotikoak –eta Neogotikoak– kutun izandakoa, denbora luzean baztertua. Eta artisau beiragileak, galbidean dagoen ofizioan maitasunagatik hasi zirenak, aberasteko asmorik gabe. Mikel Delika eta Iñaxio Zarketa ez dira aberastu, baina arte babesgabe horrekin maiteminduta segitzen dute.

profila duten berunezko hagar txoen bidez lotzen dira. XIX. mendearen bukaera arte horixe izan zen erabilitako teknika bakarra. Ordutik aurrera, kobre gaineko beruneztatze edo Tiffany teknikak arrakasta handia izango zuen, batez ere lanparak eta oro har beirazko pieza txikiak lotzeko oso egokia baita. Beirazko zatien perimetroak kobrezko zinta mehe batez inguratu eta haren gainean eztainu-be-

runa urtuz lotzen dira zatiak. XX. mendearen erdi aldera hormigoizko beirateak egiten hasi ziren, beira lodiak mihiztatzeko; berunaren edo kobre eta eztainuaren ordeztu, hormigoia erabiltu. Azken urteetan epoxi erretxinak ere erabiltzen dira.

Mikelek berunez muntatutakoak egiten ditu batez ere, baina baita garaikideak ere, erretxinak erabiltu; horrez gain, zaharberritze lan ugari ere egina da.

Mikel Delikak tailerrean ikusgai dituen zenbait obra.  
Jaizki FONTANEDA I ARGAZKI PRESS




Inaxiok, berriz, Tiffany teknika landu du gehienik. Dioenez, teknika bikaina da, esate baterako, lanparak eta oro har lan tridimentsionalak egiteko. Izan ere, kobre eta eztainuzko egitura berunezkoa baino askoz egoiagoa omen da beroaren eraginarekin eusteko eta deformatu gabe irauteko.

Hiru beira mota erabiltzen dituzte artisauek, gardentasunaren eta uniformetasunaren arabera sailkatuak: opaleszentea, koloreszentea eta katedral delakoa; hala ere, beiratea kokatuko duten lekua eta lortu nahi duten efektuaren arabera beira aukeratu ondoren, sarritan tratatu behar izaten dute tailerrean, itzala, kolorea edo beste elementu aberasgarriaren bat gehitze aldera. Beira tratatzeko teknikarik ohikoenetako bat grisalla da. Pintura hori, urarekin edo beste elementu batekin nahastu, beiran eman eta dena labearen egosi ondoren, itsatsita geratuko da, beiratuta. Badira beste tratamendu batzuk, hala nola esmaltea, zilar-horia eta azidoa.

### HISTORIAN ZEHAR

Beiratearen jatorria ezezaguna da. Haren gaineko dokumenturik zaharrenak IX. mendekoak dira, baina badirudi askoz lehenago erabiltzen hasi zela, seguru asko Bizantzion. Arrastorik zaharrenak, VI. mendeko zati batzuk, Ravenan (Italia) aurkitu zituzten; Ingalaterrako Monkwearmouth-Jarrow monasterio bikoitzean, berriz, VII. eta VIII. mendeetako beira koloredunak; Séry-lès-Mézièresen (Estatu frantsesa), gurutze bat osatzen duten beste batzuk, VIII. mendekoak, eta Lorsch, Schwarzach eta Magdeburg (Alemania) eta Wissembourgen (Estatu frantsesa), IX. eta XI. mendeen bitarteko beiretan pintatutako zenbait buru.

Zister ordenaren eragina nabarmena izan zen arte honetan. Hark aldarrikatzen zituen laztasuna eta herstura beiratean ere islatu beharra zegoen. Hartara, beirate handi koloreztatuak errefusatu eta beira zuri edota koloreak baizik ez zituen onar-



Inaxio Zarketa, ezkerrean,  
eta Mikel Delika, eskuinean,  
beren tailerretan lanean.  
Juanan RUIZ eta Jaizki FONTANE-  
DAJ ARGAZKI PRESS

tzen. Beirate ez figuratibo haiek, edonola ere, ederrak ziren beren soilean. Estatu espainoleko beiraterik zaharrenak Las Huelgas-ko (Burgos) monasteriokoak dira; haietako zenbait, oso koloretsuak. Monasterio hura zistertarra dela kontuan izanda, harrigarri edo gutxienik bitxia gertatzen da kromatismo erakusketa hori, orden hark kontrakoa aldarrikatzen zuen eta. Mikelek argitu du “misterioa”: erregeak ordaindu zituen.

Beirateak hiru misio ditu: itxitura, espazioak itxuraldatzea eta mezu bat transmititzea. Arte erromanikoan, lehena zen nagusi. Hala ere, beirateak hedapen handia izan zuen garai hartan. Gotikoan, berriz, hedapen hori are handiagoa izan zen, erabateko garrantzia hartu baitzuen, arkitektura eraldarazteraino. Erromanikoan ez bezala, tenplu itzelak eraiki zituzten, eta beiratea arkitekturaren ezinbesteko osagarria zen murrue-tako leihate zabalak janzteko. Izan ere, tenplu haietan funtsezkoak ziren, bertikaltasunarekin batera, argia eta kromatismoa, eta beirateen bidez sortu zuten argi eta kolore giro hori. Hartara, pintura monumentalaren adierazpiderik nagusia bihurtu zen beiratea, eta Erdi Aroaren amaierako mendeetan Kristautasunaren sinbologia eta mistika adierazteko tresnarik onena.

Euskal Herriko beiraterik zaharrenak, XVI. mendekoak, Iruñeko katedralan daude. Zaharxeagoak dira Valpuestako Santa

Mariakoak. Valpuesta Arabako Gaubea ibarreko udalerrria da, Burgosko Administraziopekoa, baina. Bada, orde, Baionako katedralako jatorrizko beirateak XII. mendekoak direla dioen historialaririk. Gasteizko Santa Maria edo “katedral zaharrari” datxekion Santiago kaperan dauden zenbait beirate XVII. mendekoak dira. Santa Marian ere bazeuden mende bereko ale batzuk, baina 1960an, katedrala zaharberritu zutenean, beirate haiek kendu eta, berrizatu beharrean, beste batzuk jarri zituzten. Horrelako jokaera oso ohikoa izan da leku askotan, horregatik, negargarria bada ere, ez da harritzekoa Gasteizko katedralaren zaharberritze lan haietan XIX. mendeko organoa hondatu izana.

Errenazimentua ez zen oso onuragarria izan beiratearentzat. Garai hark oro har arteen distira ekarri bazuen ere, arkitekturak zuri kolorera jo zuen eta soberan zituen, nonbait, beirateen koloreak.

**Beiratea ez da beiraz egindako edozein osaketa, hura artelana izanda ere. Labur esanda, beirazko hainbat zati mihiztatuz osatutako pieza bakarra da**

**XIX. mendearen bukaerako beiragilerik ospetsuenetako bik, Bordeleko Dagrand eta Paueko Maumejean maisuek, Euskal Herrian zabaldu zituzten beren tailerrak**

XVII. mendean gainbeheran zegoen beiragileen lanbidea, baina Barrokoak beiratearekiko interesa piztu zuen atzera berriz. Hala ere, beirazko lanak enkargatzen zituztenak konturatu ziren lanbide hori ia desagertuta zegoela. Kolorerik gabeko beirateak egin zituzten, eta ondoren margotu, denboraren joanean pintura galdu zutelarik. Beira pintatu haiek, baina, batzuk kalitate handikoak izanik ere, ezin dira beiratetzat hartu, ez baitira puzzle gisa osatutako piezak. Garai hartan zenbait tratatu idatzi zituzten, beirateak nola egin erakusteko.

Neogotikoa eta neoklasikoarekin batera, XIX. mendearen bigarren erdian, beirateen booma gertatu zen, eta garaiko beiragi-

lerik ospetsuenetako bik, Bordeleko Pierre-Gustave Dagrand eta Paueko Jules-Pierre Maumejean maisuek, Baionan eta Biarritzen, hurrenez hurren, zabaldu zituzten beren tailerrak. Haien lanak oso preziatuak dira gaur egun ere. Ospe handikoak izan ziren, halaber, XX. mende hasieran ateak zabaldu zituzten Irungo Artista Beiragileak eta Bilbo-ko Arte Beiragileak tailerrak. Ospe handi hura beren lanen kalitateak eman zien. Nolanahi ere, azken urteetan ateak itxi dituzte biek ere.

Arlo erlijiosoan bezala zibilean ere bere lekua berreskuratu ondoren, gainerako arteekin batera bilakatzen jarraitu zuen beirateak, batez ere arkitekturaren eskutik, modernismoan, *art*

## ARTISAU TXISTULARIA

Mikel Delika autodidakta da bere lanbideari dagokionez. Hori bai, beiragintza ez da 56 urteko gasteiztar honek artearekin duen harreman bakarra, oso musikari ezaguna baita Gasteizen, txistulari eta tronpeta jotzaile gisa, hain zuzen. Mende laurdena du dagoeneko lanbide eta, batez ere, zaletasun duen beiragintzan. Berunez muntatutako beirateak eta beirate garaikideak egiten ditu, zaharberritze lanez gainera. Lanbide Heziketako ikasketak bukatu ondoren, beirate industrialak ekoizten zituen fabrika batean lan egiten hasi zen. Bere emazte Sofik, Ingalaterran jaioa eta hango beiragileen tradizioaren jakitun, tailerra zabaltzeko konbentzitu zuen. Hala egin zuen Alde Zaharreko Txikitxo kalean, Aiztogile edo, ezagunago, *Kutxi* kale ezagunaren parean. Sofiren aitaren bidez Peter Young artista ospetsuarekin harremanetan jarrita, zenbait astez maisu izan zuen Mikelek irlandarra tailerrean, bere teknika hobetzeko.



*decò* mugimenduan eta ondorengo “ismo”-etan. Zenbait arkitecto eta artistak, hala nola Gaudi eta Matissek, hainbat beirate diseinatu eta sortu zituzten.

**OFIZIO BAT GALBIDEAN**

Iraungiz doan ofizioa dela beiragintza diote Mikelek eta Iñaxiok. Gorabehera asko eta babes gutxi izan du beti moden menpe egon den arte honek historian, eta hala jarraitzen duela ematen du, Hego Euskal Herrian eta, oro har, Estatu espainolean, behintzat.

Artisauok salatzen dutenez, ez dago ofizioaren iraupena bermatuko lukeen inolako helduleku instituzionalik. Esate baterako, titulazioaren bat, Arte Ederren fakultateko ikasleentzako graduondoren bat... Europako hainbat lekutan ez bezala. Erakundeek jaso izan dute horretarako proposamenik: Mikelek Fernando Cortesekin batera

egin zuen “Estudio y Plan Director de las Vidrieras de la Catedral de Vitoria-Gasteiz” (Gasteizko Katedraleko Beirateen Azterketa eta Egitasmo Zuzendaria) lanean agertu zuen kezka hori. Proposamen gehiago ere luzatu izan ditu, hala nola Gasteizko beirate ibilbidea, betiere arte horrekiko interesa sustatu eta jarraipena izan dezan baldintzak ezartze aldera. «Urte batzuk barru hemen ez da beirate-

**Beira ikusgarria, ezkerrean, eta eguzki lore ederra.**  
Jaizki FONTANEDA eta Juanan RUIZ I  
ARGAZKI PRESS

**Ez dago ofizioaren iraupena bermatuko lukeen inolako helduleku instituzionalik. Esate baterako, titulazioaren bat, Arte Ederren fakultateko ikasleentzako graduondoren bat...**

**«Urte batzuk barru hemen ez da beirateak zaharberritzeko gai denik izango, eta kanpotik ekarri beharko dituzte», dio Mikelek. Arrangura bera agertu du Iñaxiok ere**

ak zaharberritzeko gai denik izango, eta beste herrialde batzuetatik ekarri beharko dituzte», dio Mikelek. Arrangura bera agertzen du Iñaxiok. Urtebete-tsu barru erretiratzeko asmoa

du eta salgai jarriko ditu tailerra eta tresna guztiak; hala ere, ez du uste inor bere jarduerari jarraitzeko prest dagoenik. Ikastaroak ematen ditu, eta frogatu du beiratea katigatzen duen ar-

«‘ZARKETAKO’ GARAI TXARRA»

Iñaxio Zarketa Oñatin jaio zen orain dela 64 urte. Berak ere izan du txistuarekiko harremanik. Adineko jendeak urte askoan ikusiko zuen Iñaxioren aita Oñatiko plazan danbolintero. Zarketa txistulariaren seme Iñaxiori *Gazteketa* esaten zioten umetan; gaur egun, ordea, ez litzaieke halakorik bururatuko, dagoeneko Iñaxio aitajauna da eta. Gasteizera ezkondata, ondoren Kanadan eman zituen hainbat urte, harik eta goeko hamarkadaren hasieran beiragintzan hasi zen arte, lehenengo etxean eta geroxeago Gasteizko Alde Zaharreko Hedegile kalean zabaldu zuen tailerrean. Kanadan ikasi zituen beiragintza teknikak, besteak beste. Beruna ere erabili izan duen arren, Tiffani teknika landu izan du batez ere. Datorren urtean erretiroa hartuko du, eta ez du uste bere jardunari inork segida emango dionik, berak nahi lukeen bezala. «‘Zarketako’ garai txarra da hau», dio bere deiturarekin hitz-jokoa eginda.

tea dela, baina baita gazte jenderik ez doala ikastarootara ere. Gehienak emakumeak dira, eta eurak omen dira langile eta sortzaileenak ere. Egun nazioartean badira artista handiak beira ezagutu eta erabiltzen dutenak; beraz, hemen ere artistek beiragintzako teknikak ikasi beharko lituzketela uste dute. «Artisautza teknika artistikoa da», dio Iñaxiok, eta «artistak bere ideiak gauzatzeko teknikaren jabe izan beharko luke».

#### «EUSKAL CORPUS VITREARUM BAT»

Erakunde publikoetan ez dute beirateen kudeaketari dagokionez erabakiak zentzuz hartzeko gai den jende asko sumatzen. Adibide bat jarri du Mikelek. Egun beirateak hobeto kontserbatzeko bada baliabide on bat: beira isotermikoa. Beiratea, kanpoko elementuetatik babesteko, bi beira gardenen artean sartzen da, baina aireztatzeko zirrikitu bat utzita. Sistema eraginkorra eta gainera beirateak garraiatzeko baliagarria da. Baina ohiko funtzionarioaren menpe egoten da erabakia. «Imajina ezazu Iruñeko katedraleko beirateen erakusketa bat», dio begiak zabalzabal, «erakusketa egunetan, katedraleko leihoetan beira gardenak geratuko lirake eta, nahi izanez gero, egungo baliabide digitalak erabilita, bertan beirateen irudiak agertzeko aukera legoke».

Mikelen asmorik handiena beiratearekiko interesa sustatzea da egun. Berak makina bat beirate egin ditu, hainbat eliza, erakunde edo toki pribatutarako; hamaika zaharberritze; Gasteizko Andre Mari Zuriaren Arrosarioaren segizioko farolen mantentze eta zaintzaren arduraduna da; Gernikako Batzarretxeko sabai-leihoko beiratearen Esku-hartze Azterketa egin zuen, Fernando Cortesekin elkarlanean... betiere lanak, berak edo beste batek eginda, ahalik onenak izatea bilatuz. Eta beti nabaritu du jarraibideak eta gomendioak emango dituen organismo baten falta. Organismo horrek instituzioentzat ere erreferentzia izan beharko luke; esate baterako, «Euskal Herriko

Corpus Vitrearum bat». Corpus Vitrearum Medii Aevi erakundeak joan den mendean sortu zen, Bigarren Mundu Gerraren ostean. Gerra hasieran, Estatu frantseseko monumentuen ikuskatzaile Jean Verrierrek elizetako beirate gehienak desmuntatzeko agindu zuen. Berdin egin zuten gerran parte hartu zuten herri gehienetan. Beirate haiei hainbat argazki egin zizkieten baldintzarik onetan; alegia, argiztapen egokian eta dagokien eskalan, eta argazkiok izan ziren ondoren sortuko zen Corpus Vitrearum Medii Aevi delakoaren oinarria. Baina erakunde horrek Estatu espainolean ez du beste leku batzuetan duen eragina. Ados dira Inazio eta Mikel Euskal Herrirako horrelako erakunde bat aldarrikatzerako orduan. «Hemen badugu horretarako ondarea».

Ezkor agertzen dira biak artisau-beiratearen etorkizunari be-

### Jarraibideak seinalatuko dituen eta instituzioentzat ere erreferentzia litzatekeen organismo bat behar omen da; esate baterako, «Euskal Herriko Corpus Vitrearum bat»

### Iñaxiok eta Mikelek onartzen dute badaudela beirate industrial onak, kalitatekoak, baina argi utzi nahi dute produktu horiek ez dutela artisau-lanaren nortasuna

gira. Edozein artisau bezala, edozein artistak bezala, beren legatua utzi nahiko lukete, maitate duten zeregin horri jarraipena emango dion jendea izatea. Baina ulertzen dute, eurek bizi izan dutelako, edonor ez dagoe la prest negoziotik gutxi duen jarduera batean lan egiteko.

Iñaxiok dioenez, beti krisian den ofizioa da, zer esanik ez azken urteotan. Ulertzen dute, era berean, jende askok beirate in-

dustrialak erostea, askoz merkeagoak dira eta. Baina jende horrek jakin behar luke zenbat lan dagoen artisau-beirate baten atzean. Lan pertsonalizatua da, bezeroak lanaren jarraipena egiteko aukera ematen duena. Nolanahi, ez omen dago produktu komertzialekin lehiatzerik. Materiala oso garestia da; gainera, beira inportatu beharra daukate, Alemaniatik eskuarki, Estatu espainolean ere, ez baita fabrikatzen. Iñaxiok eta Mikelek onartzen dute badaudela beirate industrial onak, kalitatekoak, baina argi utzi nahi dute produktu horiek ez dutela artisau-lanaren nortasuna.

Ez ziren ofizioan aberasteko hasi, bizitzeko baizik: beiragintza ogibide gisa eta grina gisa bizitzeko. Arte eta ofizio batekiko maitasunagatik hasi ziren eta ez dira aberastu, baina harekin maiteminduta segitzen dute Gasteizko azken beiragileek.

Tiffany teknika erabilita egindako lanpara.  
Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI  
PRESS



**iRRITZA:**



Amaia  
**BALLESTEROS**



# LAUTIK BAT, GAIXORIK

Pello Mariñelarena gogoan, larri gaixorik dauden presoen askatasuna aldarri

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Badira 26 urte Pello Mariñelarena Etxarri Aranazko preso kartzelan hil zela. Hori horrela, bihar bere herrian gogoan izango dute Hartu Trena! ekimenaren eta «Guk ibilitakoak gureak dira» erakusketaren eskutik. Hain justu, haren obra artistikoa erakutsi eta hark bezala gaixotasun larriren bat duten presoen askatasuna exijituko dute etxarriarrek.

**E**uskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko sare herritarraren trena lepo heldu da asteburu honetara. Kalejirak, giza kateak, tailerrak eta bestelako mobilizazioak izango dira Euskal Herrian barrera. Joan den urtarrileko manifestazio erraldoiaren ondo-

ren, Sareren trena abiatu zen, geltokiz geltoki bidaiari kopurua emendatuz, mobilizazioak biderkatuz. Asteburuon, besteak beste, Agurain, Donostia, Beasain, Oiartzun, Gasteiz... eta Etxarri Aranatz ditu geltoki. Herri nafar horretan Hartu Trena! ekimenak bat egingo du Pello Mariñelarena herriko semea omenduko duen “Guk ibilitako-

ak gureak dira” erakusketa ibiltariarekin.

## PELLO MARIÑELARENA GOGOAN

Dagoeneko 26 urte joan dira Mariñelarena Parisko Antoine Beclere ospitalean hil zenetik. Hara eraman zuten preso etxarriarra Fresnes espetxeko ospitaleetik, hiesa diagnostikatu ziotenetik mediku arreta eskasa jasan ondoren, orduan salatu zuten.

Pello 30 urte besterik ez zituela hil zen, egungo gazte asko jaio aurretik, eta horiek baino zaharxeagoek ere ez dute egun hura gogoan izango. Biher, baina, bere herrian gogoratuko dute bere lagun eta auzoek, Etxarri Aranatzera agertzen den orok.

Aldi berean, haren alderdi are ezezagunago bat, artistikoa, erakutsiko dute Pelloren marrazki eta margoak, poemak, gutunak, gogoetek osatuko duten erakusketa ibiltarian.

«Etxarri Aranatz. Amaren Etxea», Pello Mariñelarenak La Santen egindako oleoa  
ATARAMIÑE



Espetxean zendutako euskal preso politikoak

1987an, droga mendekotasu-na gainditzeko ahaleginean Ga-lizian zela, ihesari eman behar izan zion, bere zenbait lagun atxilotu zituztela jakindakoa-n. Luze gabe helduko zion ibili ga-be zuen zaletasun bati: pintura-ri, eta ez hala moduz. Ehunetik gora koadro egin zituen –klan-destinitatean lehenbizi eta kar-tzelan ondoren– olio-z, akuare-laz, ikatz-ziriz edo sanginaz, baita bakarren bat bolalumaz ere. Paisaiak, erretratuak, gorpu-tzak... Autore ezagunen lanek iradokitakoak zein bere baitatik sortutakoak. Estilo aniztasuna sumatzen da haren obran, pin-tura-joera desberdinen eragina. Eta pinturarekin batera, beste zaletasun bat ere garatu zuen ihesean eta kartzelan: poesia. Bihar Etxarri Aranatzen izango da haren obra ikusteko, haren esku trebearen berri izateko au-ker-a. Eta haren sentsibiltatea nabaritzekoa, idatzietan ere aise suma daitekeen sentsibiltatea.

1993an, etxarriarra hil ondo-ren, Amnistiaren Aldeko Batzor-deek margo eta idatzi horietako asko bildu eta “Pello” izenburu-ko liburu ederrean argitaratu zi-tuzten. Duela bi urte, Atarami-ñek, euskal preso, iheslari eta deportatu politikoen sorkuntza lanak sustatu eta argitaratzen dituen elkarteak, sarean jarri zuen liburua, hainbat formatu-tan deskargatzeko moduan.

Mariñelarenaren omenezko ekitaldiak atzo hasi ziren, eta bihar beste hainbat ekitaldi izango dira herri nafarrean: “Guk ibilitakoak gureak dira” erakusketaren *mustutze* edo inaugurazioa; Uribe Crew grafi-tilarien horma-irudia; Artie Ka-lia taldeak zendutako presoaren margoek iradokitako poltsa eta elastikoak aterako ditu kalera; Altsasuko Arte Bide taldearekin, parte-hartzeko moduko sorme-na; eta Pelloren olerkietatik abiatuta hainbat idazle, bertso-lari eta musikarik tabernetan eskainiko dituzten errezitaldiak.

Mariñelarena gogoratu eta haren obra ezagutaraztearekin batera, hirugarren helburu bat ere badu biharko ekimenak, Pe-llo kartzela baldintza kaskarre-tan bizi izan zela eta mediku-

| Izen-abizenak                  | Adina | Gaixotasuna                                   | Atxilotze data | Heriotza data                       |
|--------------------------------|-------|-----------------------------------------------|----------------|-------------------------------------|
| Juan Jose Crespo Galende       | 27    | Gose greban                                   | 1979/09/01     | 1981/06/19                          |
| Jose Ramon Goikoetxea Bilbao   | 25    | Bere buruaz beste                             | 1982           | 1985/06/26                          |
| Joseba Asensio Artaraz         | 27    | Tuberkulosia                                  | 1980/07/02     | 1986/06/08                          |
| Mikel Lopetegi Larrarte        | 33    | Bere buruaz beste                             | 1981/03/29     | 1988/03/02                          |
| Juan Karlos Martiarena Alberdi | 30    | Bihotzekoa                                    | 1979/06/01     | 1988/06/15                          |
| Migel Zalakain Odriozola       | 58    | Bihotzekoa                                    | 1987/04/29     | 1990/12/01                          |
| Jean Groix                     | 40    | Bere buruaz beste                             | 1990/12/04     | 1991/01/20                          |
| Pello Marinelarena Imaz        | 29    | Hiesa                                         | 1990/11/30     | 1993/05/15                          |
| Jose Mª Aranzamendi Arbulu     | 41    | Bere buruaz beste                             | 1995/05/16     | 1997/02/07                          |
| Unai Salanueva                 | 22    | Bere buruaz beste                             |                | 1997/02/10                          |
| Juan Karlos Hernando Gonzalez  | 35    | Bere buruaz beste                             | 1994/05/01     | 1997/07/20                          |
| Oihane Errazkin Galdos         | 31    | Bere buruaz beste                             | 2001/09/23     | 2004/07/07                          |
| Jose Angel Alzuguren Perurena  | 39    | Bere buruaz beste                             | 2002           | 2005/10/31                          |
| Igor Angulo Iturrate           | 32    | Bere buruaz beste                             | 1996/12/01     | 2006/02/27                          |
| Roberto Sainz Olmos            | 41    | Bihotzekoa                                    | 2003/09/09     | 2006/03/04                          |
| Angel Figueroa Fernandez       | 41    | Zehaztugabe: epilepsia atake bortitzak zituen | 1994/10/25     | 2013/03/14<br>Espetxeratze arinduan |
| Xabier Lopez Peña              | 54    | Garun isuria                                  | 2008/05/21     | 2013/03/30                          |
| Arkaitz Bellon Blanco          | 36    | Biriketako edema akutua                       | 2003/10/07     | 2014/02/05                          |

Gaixo larri izanik kaleratu eta ondoren zendutakoak

| Izen-abizenak                | Adina | Gaixotasuna                                 | Askatasun data | Heriotza data |
|------------------------------|-------|---------------------------------------------|----------------|---------------|
| Josu Retolaza Loidi          | 33    | Kartzinoma epidermoidea                     | 1986/10/14     | 1987/05/19    |
| Jabier Gorostiza Lajarriaga  | 55    | Laringeko minbizia                          | 1994/07/16     | 1995/06/17    |
| Santiago Diaz Uriarte        | 34    | Eztarriko minbizia                          | 1997/03/25     | 1995/10/27    |
| Juan Jose Etxabe             | 58    | Bihotzekoa                                  | 1996/07        | 1996/07/11    |
| Jean Louis Maitia            | 55    | Bihotzekoa                                  | 1997/06/06     | 1997/08/25    |
| Esteban Esteban Nieto        | 45    | Minbizi hepatikoa                           | 1999/04/07     | 1999/09/26    |
| Ramón Gil Ostoa              | 45    | Bere buruaz beste                           | 2002/02/10     | 2002/02/20    |
| Kepa Miner Aldabalde         | 70    | Biriketako gutxiegitasuna                   | 1999/07/02     | 2004/04/26    |
| Mikel Ibarñez Oteiza         | 56    | Linfoma minbizia/bihotzekoa                 | 2008/08/08     | 2011/04/07    |
| Josu Uribetxebarria Bolinaga | 59    | Birika, burmuina eta giltzurruneko minbizia | 2012/09/16     | 2015/01/16    |



Ibon Fernandez Iradi preso eriaren askatasuna eskatzeko agerraldia Lasarten-Orian.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

arreta eskasa jaso zuela salatze-tik haragokoa: duela 26 urte ger-tatu zenaren salaketa gaur egun antzeko egoeran dauden euskal preso-en askatasuna exijitzeko ere baliatu nahi dute.

GAUR EGUNGO PRESO ERIAK

Izan ere, Pello Mariñelarena ez da kartzelan hildako lehen eus-kal preso-a, haren aurretik zortzi lagunek galdu baitzuten bizia kartzelan, giltzapean garatutako gaixotasunen ondorioz edo hango baldintza latzek hartara-tuak. Eta ez da, era berean, bal-dintza horietan hildako azkena, ezta hurrik eman ere, 1993ko maiatz hartatik beste hemeretzi euskal preso hil baitira.

Gaur egun espetxean larri gai-xorik dauden lagun-en zerrenda luzea da, zenbakiak gero eta po-toloagoak, gero eta ikaragarria-goak, are gehiago kartzela, berez eta bereziki euskal preso-ei eza-rritako salbuespen baldintzetan, preso horientzako arrisku larri eta etengabea dela jakinda.

Jaiki Hadi prebentzio eta asis-tentziarako elkarteak berriki ar-gitaratu duen “Espetxea eta osa-suna” txosten mardularen arabera, hamar euskal presok, duten gaixotasunaren larria de-la-eta, kalean izan beharko luke-te. Baita zortzi gehiagok ere, egoera analogoan baina beren izenak jendaurrean agertzerik nahi ez dutenek. Hemezortzi la-gun, beraz, muturreko egoeran.

Kasu larrienak dira horiek, baina ez bakarrak. Denetara 97 euskal presok eraman behar du-te beren kartzelaldia eritasunen bat, fisikoa zein psikikoa, jasan-da. 97 lagun, 385 kideko kolekti-bo batean. Beraz, kolektibo ho-rren laurden batek pairatzen du gaitzen bat, osatze bidean jar-tzeko lekurik kaltegarrienean eta baldintzarik latzenetan.

Sarek ohartarazten duenez, euskal preso-ei ezarritako sal-buespen baldintzak eta haiekiko jokaerak denentzat dira kaltega-rriak osasunari dagokionez, bai-na preso eriengan ondorioak are kaltegarriagoak, arriskuga-rriagoak dira. «Espetxetik osa-sun-zentro edo ospitaleetarako bidean, jarrera agresiboak ohi-koak dira trasladoetan. Oroko-

Gaixotasun larriak dituzten presoak

| Izen-abizenak                          | Adina | Gaixotasuna                                                | Atxilotze data | Espetxea             |
|----------------------------------------|-------|------------------------------------------------------------|----------------|----------------------|
| Josetxo Arizkuren Ruiz                 | 57    | Kardiopatia iskemiko larria                                | 1999/03/09     | A Lama (Pontevedra)  |
| Garikoitz Arruarte Santa Cruz          | 36    | Aldebiko uveitis akutua                                    | 2003           | Almeria              |
| Jagoba Codoó Callejo                   | 51    | Espondilitis ankilosantea                                  | 2001           | Castelló II          |
| Iñaki Etxeberria Martin                | 44    | Begietako hainbat gaitz                                    | 1996/02/12     | Topas (Salamanca)    |
| Ibon Fernandez Iradi                   | 55    | Esklerosi anizkoitza                                       | 2003/01/04     | Lannemezan           |
| Gorka Fraile Iturralde                 | 40    | Mingaineko kartzinoma                                      | 1998           | Badajoz              |
| Aitzol Gogorza Otaegi                  | 35    | Obsesio konpulsio desoreka                                 | 1999           | Basauri (Bizkaia)    |
| Ibon Iparragirre Burgoa                | 42    | VIH C-3 estadioko infekzioa                                | 2010/01/26     | Alcalá-Meco          |
| Jose Ramon Lopez de Abetxuko Likiniano | 66    | Bradikardia sintomatikoa eta zerbikoartrosia besteak beste | 1989           | Villabona (Asturias) |
| Jesus M <sup>a</sup> Martin Hernando   | 54    | Eskizofrenia paranoidea                                    | 2002           | Zaballa (Araba)      |

Sareren prentsaurrekoa, Bilbon, astelehenean. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

bek atzerapen handia sufritu behar izatea», jarraitzen du sare herritarrak.

Segurtasuna izaten da bidega-bekeria askoren aitzakia. Esate baterako, konfiantzako sendagile batekin harremanetan jartzea debekatzeko. Hartarako eskaera gehienak atzera botatzen dituzte. Eta betiere medikuaren eta presoaren arteko harremana kartzelaren kontrolpean egoten da. «Horrek guztiak, noski, kasuen jarraipena oztopatzen du, batez ere gaixotasun mentalen kasuetan».

**KARTZELA AZKEN HATSA EMATEKO UTZI**

1981etik 28 euskal preso hil izana ikaragarria da, baina ez harriagarria, kartzelara sartu bezain laster aurre egin beharreko egoera ezagututa. Guztiz onartezin baina ulergarria da kasuistika beldurgarri hori, gaixorik dagoenari emandako «tratamendua» kontuan izanda. Hainbat euskaldun preso ziega goibel batean hil dira azken hamarkadotan, bakarrik, alboan inor izan gabe, begirada lauso batez azken agurra adierazteko ere aukerarik gabe. Edo, Pello Mariñelarena bezala, ospitale urrun batean, poliziaren baten begiradapean. Horrelaxe eman dute azken hatsa hamazortzi euskaldunek.

Beste hamar, berriz, kartzelatik kanpo hil dira, barruan garatu eta guztiz babesgabe jasandako gaixotasunen ondorioz. Ez dago jakiterik lehenago kaleratu izan balituzte beren gaixotasuna gainditu edo gutxienez bizi-rik iraungo zuketena, ez dago jakiterik tratamendu eta tratatu egokiago batez heriotza saihestuko zuketena. Ez dago jakiterik, hartarako aukerarik ere eman ez zietelako. Ondo jakina da, ordea, kartzela eta “segurtasunaren” izenean ezarri zizkieten salbuespen neurriak ez direla edozein eritasun osatze bidean jartzeko aproposenak eta bai berebiziko testuingurua edozein gaixotasunok okerrera egin dezan.

Etxarri Aranatzeko geldituko da bihar euskal presoaren eskubideen aldeko trena eta handik jende gehiagorekin, arrazoi gehiagorekin abiatuko da hurrengo geltokirantz.



rean, presoak eskuburdinak jarritan izaten ditu denbora guztian, eta agenteek osasun-gelatik ateratzeari uko egiten diote, presoari dagozkion intimitate eta konfidentzialtasun eskubideak urratuz», salatzen du sare herritarrak. Jarrera erasokor hori batzuetan osasun zerbitzuetako profesionalak eurek ere erakusten dute. Urrunera gabe, duela bi aste Gorka Fraile preso durangarra Badajozko ospitale-

ra eraman zuten proba bat egin ziezaioten, mingaineko minbizia baitu. Proba egin behar zioten makinara sartzeko momentuan, polizeiek eskuburdinak kendu zizkieten, baina proba egin behar zuen profesionalak preso berritortzeko eskatu zien. «Espetxe batetik besterako trasladoetan txosten medikoak galtzea ere ez da arraroa, edota, traslado bat dela eta, diagnosia egiteko beharrezkoak diren pro-

**Pello Mariñelarenaren alderdi artistikoa erakutsiko dute bihar Etxarri Aranatzeko, marrazki eta margoek, poemek, gutunek, gogoetek osatutako erakusketa ibiltarian**

**Guztiz onartezin baina ulergarria da kasuistika beldurgarri hori, gaixorik dagoenari emandako «tratamendua» kontuan izanda. Hainbat euskal preso ziega goibel batean hil dira**



**Gorka Zozaia - @zotz\_**  
Kimikaria

## «Beltzak gara behelaino artean?»

**S**arrionandiak amazig herriarekin alderatu gintuen saiakera sakon eta zabal hartan eta ez naiz ni zutabe arin eta estu honetan hitz joko batetik askoz haratago joango.

Euskara nondik heldu ote den eta zein zabalera eta ahaidetasun izan dituen ziurgabetasunez minaturiko eremua dela birgogoratu dit asteon sare sozialetan bolo-bolo zabaldu den ikerlari kanadar batek egindako bideo laburrak. Eta berriz ikusi dut azalpen horietan Europa mendebaldeko eremu handi bat koloreztatua. Glaziazioek kontinente zaharrean eragindako giza mugimenduetara ere joaten ahal baikara gure hizkuntzaren erroen bila.

Hain zuzen, hil hasieran "Nature"-n argitaratu den goi paleolitikoko ikerketa genomiko zabalenean, argi geratu dena horixe izan da: Europa milurtekotan zehar migrazio handi eta bortitzak jasan dituen lurraldea dela. Duela 45.000 urtetik 7.000 urtera bitarteko 51 gizakiren arrastoen DNA aztertu dute Harvardeko Unibertsitateko David Reichen taldean, orain arte gutxi batzuk soilik zeudenean aztertuta teknikon garapen faltaren ondorioz. Lehen ondorio argigarria; duela 45.000 urte Europara heldutako lehen *homo sapiens* haien arrasto genetikorik ez dugula gaur egungo europarrek, deus! Alegia, egun kontinente zaharrean bizi garen guztiak garela atzerritar. Egungo europarrek ahaidetasuna dugun lehenengo populazioa duela 37.000 urtekoa ei da, kultura auriñazienseari dagokiona (arte eta musikaren lehenengo aztarnak erakusten dituztenak), eta, era berean, populazio fundazional bakarretik zetozenak.

Garai honetan hasten da azken Izotz Aroa eta honek europar populazioa hegoalderantz migratzera edo desagertzera eramaten du. Glaziazioaren unerik bortitzena baino lehen, dena den, aurreko populazioa ia erabat ordezkatzeko duen talde bat agertzen da duela 33.000 urte. Kultura gravatiensearekin lotzen dira hauek, Venusen eskulturek eta eskuekin egindako irudiek ezaugarritzen dutena. Ez da duela 19.000 urte arte izango berriz ere kultura auriñaziensearen ondorengoak azaltzen direla (Kan-

tabriako aztarnekin loturikoak), antza Izotz Aroan Europa hegoaldeko gordeleku beroetan babestu zirenak (Iberiar penintsulan batez ere), klima epeltzean Europa iparraldeko eremuak berreskuratu eta populazioa berriz ere ordezkatzuz.

**Duela 14.000 urte berriz, Ekialde Hurbiletik Europan nagusi bilakatuko den populazio bat heltzen da, aurrekoak ia erabat suntsituz eta bere marka genetikoa milurtekoetan mantenduz, Italiako Villabrunan duela 7.000 urte bizi izan zen ehiztari/biltzaileak erakusten duen gisa. Gizaki honek azal iluna eta begi urdinak ditu, duela 14.000 urtera arte europar guztiak azal ilun eta begi marroikoak zirenean.** Europara lehen gizaki zuriak duela 13.000 urte heltzen dira eta duela 8.000 urte Mesopotamiatik nekazariak heltzearekin Neolitikoa zabaltzen denean hasten da zuria Europan gailentzen. Alegia, europarrak beltzak izan garela *homo sapiens*-ak kontinente zaharrean eman duen denbora gehienean!

Beltza zen, besteak beste, ikerturiko 51 gizakietatik "Dama Gorria" bezala

ezagutzen dena, duela 19.000 urte inguru egungo Kantabrian bizi izan zena eta garai horietan ezohikoa zen ehorzketak bat izan zuena, gorpua airean lehortzen utzi eta gero hezurak gorritz margoturik lurperatu zutena. Garaian gorazarre egin zitzaion europar horrek, gogora ekarri dit irudira ekarri dudan aktibista suediarra, Tess Asplund, neonazien martxa baten aurrean, tinko ukabila jasota, faxismoaren aurkako duintasunaren irudi bilakatu dena.

**Xelebrea da bizitzea egokitu zaigun garaia. Aste berean aipatu ikerketa, Asplunden ekimena, Berlingo gudua- ren urteurrena eta alta, Microsoften Tay robot xaloa -Twitter bidez gizakiekin harremandu eta ikasteko sortua- sare sozialek arrazista, antisemita eta matxista bilakatu dute ordu gutxitan.** Inozokeria hegemoniko egiten ari den garaiotan, dagoeneko ez nau horrenbeste kezkatzen euskara nondik heldu ote zen Kantauriko hegi honetara, baizik eta nola demontre izan den gai historiako enbata guztien gainetik bizirik irteteko. Erresistentzia- tik bada zer ikertu, ikasi eta saiatu! •



Tess Asplund Suediako Borlänge herrian neonazien martxa bati aurre egiten.

YOUTUBE

{ koaderno } Iker Barandiaran

# Hil aurretik, topa egin

Ez naiz ni heriotzaz trufa egitearen laguna, baina gogoan dut orain dela hamar urte sasoi berean hainbat lagun hil zitzaizkidala; eta, halako batean –gogoan dut une zehatza– bulegora lankide bat sartu eta “badakizue nor hil dan?” galdetu zuela airera. Segundo bateko estutasuna izan nuen, baina erantzuna entzuterakoan (“Leroy Johnson”), barne-barneko barre eztanda izan nuen. Izan ere, heriotza guztiek ez digute berdin eragiten, eta askorengatik ez digu gorputzak topa egiteko eskatzen. Prince-ren heriotzak, adibidez, ez dit ezertxo eragin, baina distantziatik zer pentsa eman didate Bowieren eta batez ere (Motörhead taldeko) Lemmy bidean gelditu izanak. Aldiz Stevie Wonder ez dakit bizi den ere, baina askori ez zaigu ahaztuko musikariitsuak alkohola eta gidatzea bereizteko egin zuen ahalegin publizitario hura: «Edanez gero, ez gidatu!».

Egun funtsezkoa edo erabat zentzuzkoa dirudien aholkua ez zen garai batean hainbeste betetzen. Onartu dezagun, oraindik ere alkoholak presentzia izugarria dauka gure gizartean eta zer esanik ez alderdi sozialari dagokionez. Duela gutxi entzun nion irratian euskal emakumezko aktore bati alkoholik edaten ez duela, eta behin baino gehiagotan jendea bere “ohitura” ezagututa harrituta gelditzen dela. Oraindik ere ez omen da ez edatea sozialki ohitura arrunta! Hara, aspalditik Euskal Herrian bizi den lagun atzerritar batek gurean hain sustraituta dau den sagardotegiak ezagutzen ez zituela ohartu nintzen orain gutxi. Kontua da lagun hau barazkijalea dela eta ez duela inoiz alkoholik edaten. Beraz...

Nik, ordea, alkoholdun edari gutxi ditut gustuko, baina nerabezarotik ez dut inoiz garai abstemiorik izan, nahiz eta autoa hartu behar izateagatik tamaina txikian edaten ohituta nagoen. Eta edan edaten badut ere, onartu beharra daukat gaur egun errazagoa dela alkohola ez edatea. Horretan zeresan handia dauka alkoholik gabeko garagardoa existitzeak. Bazen garai bat, askok bizi izan duguna, egunez zein gauez tabernetara irten eta luzaroan besterik edan nahi ez zutenentzat alternatibarik ez zegoena. Kas, kola edo mostoa edaten orduak egitea ez da plana!

Baina alkohola edan gabe egoteak testuinguru zehatzetan gauzen perspektiba desberdina ematen dizu eta

batzuen ustez hori besteekiko atzean gelditzea bada ere, nik uste aurrean jarri eta guztiak begiratzeko bidea ematen dizula.

Adibide bat jarriko dut: ez dut inoiz ahaztuko orain dela hogeitau urte San Juan jai batzuetan Gaztetxekeko tabernan lan egiteko txanda goizaldean hartu genueneko. Bezperan sukarra nuela-eta etxean gelditu nintzen eta iratzargailua fin-fin jarrita goizean goiz jaiki, gosaldutxo eta Gaztetxera jo nuen fresko-fresko. Begi horiekin ikusita hura zen fauna! Herriko eta kanpotik etorritako ehunka pertsona hil ala biziko egoeran, zein baino zein aztoratuago edo zimelduago. Eta ni barra atzealdetik haiei zerbitzatzen eta so. Ia eguerdira arte izan genuen taberna zabalik eta dozenaka pasarte gogoratzen ditut: diru gabe gelditu zirelako trukean urdaiazpiko hamarrretako ederra eskaini ziguten bizkaitar xelebreak (gerora jakin genuen herriko harategi bateko erakusleihoa apurtuta lortu zutela urdaiazpikoa), beste batzuk lurre-

Bazen garai bat, egunez zein gauez tabernetara irten eta luzaroan besterik edan nahi ez zutenentzat alternatibarik ez zegoena. Kas, kola edo mostoa edaten orduak egitea ez da plana!

an ziplo gelditzen joan zirela... Brigada Criminal izena jarrita zuen txanda hartakoa kriminala izan zen alajaina, kar, kar... Are gehiago, askotan ez da erraza izaten halakoak bizi eta, gainera, detaile guztiekin kontatzeko moduan gogoratzea.

Alkoholak –beste elementu batzuek bezala– balio du desinhibitzen laguntzeko, barrenak askatzeko, baina hori gabe ere badago dibertitzerik, eta behar du egon. Horra hor, esaterako, inguruan ditudan lagun dezente aste barruan kontzertuetara joaterik nahi ez dutenak. Gutako askok bezala biharamunean lanera joan beharra dute, eta ezin dute kontzertu bat ikustea irudikatu alkohol ezer edo gutxi edanda. Beraientzat biak lotuta daude, eta bat egin ezean nahiago dute aukera hori erabat galtzea. Bada, bizitza egunez egun bizitzeagatik egin dezagun topa! •

**O**tsailaren 4an Floridako Auzitegi Gorenak Pablo Ibarren heriotza zigorra bertan behera utzi eta epaiketa errepikatzeke aukera ireki zuen, betiere Fiskaltzak aurkeztutako helegitea onartzen ez badu. Candido Ibarrek, Pabloren aitak, ondo gogoratzen du egun hori. Irribarrez azaltzen du nola jaso zuen berria, «itxaroten genuena». «Esperantza piztu digu berriro», aitortzen du gaztaroan Ameriketako Estatu Batuetara pilotari profesional izatera joandako zesta punta jokalaria ohiak.

Pablo Ibarren eta bere sendi osoaren bizitza 1994ko udan aldatu zen. Ekainaren 27an, Casimir Sucharski, Sharon Anderson eta Marie Rosen gorpuak agertu ziren lehenaren etxean. Segurtasun kamerak gertatutakoa jaso zuten. Youtuben ikus daitekeen bideoan etxean bi pertsona sartzen direla ikus daiteke. Eta hiru biktimak nola jotzen eta hiltzen dituzten. Krimenaren ondoren, burua kamiseta batekin estalita duen gizonak kamiseta kentzen du eta kamerak haren aurpegia grabatzen du.

Irudia ez da ona, zuri-beltzean dago eta oso zaila da hiltzailea ezagutzea. Baina hori ez zitzaion inporta izan Manzellari, bideoan agertzen den pertsona sarekada batean atxilotutako gazte bat zela deduzitu zuen ikerlariari. Gazte hori, 22 urtekoa, Pablo Ibar zen. Candidok gogoratzen duenez, poliziak ez zuen semearen kontrako inolako frogarik, hilketaren lekuan aurkitutako DNA eta hatz markak ez baitziren Pablorenak. Sucharskik jasotako mehatxuak ere ez zituzten behar bezala ikertu. Eta Sucharski ez zen ez edonor, «drogen eta klubean munduan oso ezaguna zen». Pentsa, “Buch Casey” deitzen zioten Miamin.

Pablaren senideak sarri salatu dutenez, taldeko identifikazio saioan ere errepikatu ziren irregularitasunak. Lekuko batek, Sucharskiren auzokide Gary Floyk, biktimaren etxetik atera ziren bi gizon ikusi zituela deklaratu



## «Floridako Auzitegi Gorenaren erabakiak Pablo aske ikusteko esperantza piztu digu berriro»

**CANDIDO**

**IBAR ASPIAZU**

**PABLO IBARREN AITA**

Candidok borrokan tinko jarraitzen du Pablo Ibarren errugabetasuna frogatzeko. Floridako Auzitegi Gorenaren erabakiak zestoarraren esperantza piztu du.

zuen, baita Ibar horietako bat zela ere. Candidok dionez, Floyk segundo gutxi izan zituen us-tezko hiltzaileak ikusteko, eta leihoak tindatutako auto batean zihoazela aitortu zuen gainera. Taldeko identifikazio saioan bi aldiz atera zuten Pablo, bigarrenean bera bakarrik, abokatua-ren laguntza barik.

Hori guztia gutxi ez eta Pablok zurigarria ere bazuela gogoratzen du Candidok. Izan ere, Pablo egun bere emaztea den Tanya Quiñonesen etxean zegoen hilketak izan zirenean. Bi gazteak Tanyaren gelan harra-patu zituzten senide batzuek, eta liskarra eragin zuen horrek. Neskaren gurasoak Irlandan zeuden, eta Irlandara deitu zieten, gertatutakoaren berri emateko. «Baina Tanyak ezin izan zuen lehen epaiketan deklaratu», salatu du Candidok bere seme-meari jarri zioten ofiziozko abokatuaren lan kaskarra gogoan.

Kayo Morgan deitzen zen ofiziozko abokatua, eta, Candidok dionez, ondo moldatzen zen heriotza zigorra jaso zezaketen kasuetan. Tamalez, Pablo Ibarren kasua hartu zuenean, Morganek arazo ugari zituen. Arazo pertsonalak eta legalak. 1999ko urtarilaren 11n, bigarren epaiketa

«Pablo Tanyarekin zegoen hilketak izan zirenean, baina Tanyak ezin izan zuen deklaratu lehen epaiketan, eta gero ez zuten bere deklarazioa onartu»

hasi zenean –lehen baliogabetu egin zuten 1998ko urtarrilaren 25ean epaimahaia epaiaren inguruan ados jarri ez zelako– Morgan atxilotu egin zuten indarkeria matxista egotzita.

«Defentsaren taktika ezer ez egitea zen, abokatuaren ustez, fiskalak ez baitzituen Pablaren aurkako frogarik. Oraindik ere ez dut ulertzen zergatik ez zituen txostenak eskatu Pablo bidean agertzen zen gizona ez zela frogatzeko», dio. Zentzu horretan, Morganek Manchesterko Unibertsitateko aditu batek egindako txostena alboratu zuela gogoratu beharra dago. Eta ez zituen Tanyaren senideak lekuko bezala deitu. Epaiketa 2000. urteko ekainaren 14an amaitu zen, epaimahaiak Pablo Ibar errudun deklaratu zuenean.

#### HELEGITEAK ETA EPAIKETAK

Heriotza zigorra ezarri zioten Pablari. Ondo gogoratzen du Candidok, epaia ezagutuaz bat semea askatzeko borroka abiatu zuenak. Ibarren familiak Peter Raben abokatua kontratatu zuen, Joaquin Jose Martinez hiltzera zigortutako espainiarra heriotza korridoretik ateratzea lortu zuen abokatua hain justu. Rabenek Floridako Auzitegi Gorenaren helegite bat aurkeztu zuen Pablari epaiketa justu bat izateko eskubidea ukatu zitzaioz argudiatuz, zigortu zuen epaitegiak «fundamentu gutxiko froga zirkunstantzialetan» oinarritu baitzuen bere erabakia.

Candido Ibarrek azaldu duenez, Rabenek aurkeztutako errekursoari buruzko erabakia hartu aurretik, Floridako Auzitegi Gorenak Seth Peñalverren aurkako epaiketa errepikatu egin behar zela onartu zuen, bere abokatuak aurkeztutako antzeko apelazio baten ondorioz. Peñalver Pablo zigortu zuten kasu berdinagatik epaitu zuten, eta Auzitegi Gorenaren erabakiak familiaren esperantza piztu zuen. «Pablaren aurkako epaiketa errepikatuko zela uste nuen, erabat konbentzita nengoen», gogoratu du Candidok.

Baina ez, Gorenak ez zuen onartu Pablaren helegitea. Kolpe psikologiko gogorra izan zen



## «Eusko Jaurlaritzak ahal duen guztia egingo duela esan zigun Urkulluk»

Pablo Ibarren familiak 1,3 milioi dolar behar ditu beste epaiketa bati aurre egiteko, eta oraingo 600.000 euro baino gehiago bildu ditu. Ezinbestekoa da falta den dirua ahalik eta azkarren lortzea, izan ere, Candidok dioen bezala, Floridako Auzitegi Gorenak Fiskaltzak aurkeztutako helegitea onartzen ez badu –datozen hila bateetan eman behar du bere ebazpena–, prozesua «zerotik hasiko da», eta dirua beharko dute horri aurre egiteko.

Ibarren sendiak abokatuei ordaindu beharra du defentsa on bat bermatzeko, eta abokatuak txostenak egin eta ordaindu beharko dituzte Pablaren errugabetasuna frogatzeko. Candidok onartu duenez, familiaren baliabide ekonomikoak agortu dira jada. Horregatik jarri dute martxan kanpaina bat Hego Euskal Herrian eta Estatu espainolean. Pablo Ibar Elkartearen laguntzari esker, presoaren aita hainbat agintarirekin bilduko da bere semearen kasua azaldu eta diru laguntza eskatzeko.

Pasa den astean, esaterako, Candido eta elkartearen bozeramaile Andre Krakenbberger Iñigo Urkullu lehendakariarekin bildu ziren Gasteizen. «Bere elkartasuna helarazi zigun eta ahal duten guztia egingo dutela esan zigun», azaldu du Candidok, Lakuak elkarteari urtero ematen dion laguntza, 50.000 eurokoa, handitzea espero duenak. Eta badihudi Lakuak aztertuko duela aukera hori jatorri euskalduna duen presoari laguntzeko. Zentzu horretan, Ibarrek AEBetan 22 urte daramatzala preso gogorra beharra dago,

azken hamabostak heriotzaren korridorean. Orain, Floridako Auzitegi Gorenak Fiskaltzaren helegitea onartzen ez badu, bertatik atera eta beste espetxe batera bidaliko dute epaiketa berriaren zain.

Beste prozesu bat hasiko balitz, garestiena abokatuei ordaintzea litzatekeela azaldu du Candidok. Dioenez, abokatu bat kontratatzea funtsezkoa da bidezko epaimahai bat aukeratzeko, izan ere, etorkinen aurkako jarrerarik ez duten pertsonak hautatzea oso garrantzitsua da. Heriotza zigorraren aurka dauden epaimahaikideak hautatzea zailagoa izango da, Floridan, AEBetako hegoalde osoan bezala, gehiengoa zigorraren alde baitago. «Euskal Herrian jendeak ez du ulertzen heriotza zigorra, %80 daude kontra eta %20 alde. Baina Floridan egoera ezberdina da, han %80 alde daude eta %20 aurka».

Epaimahaiaren aurrean ondo hitz egingo duen abokatu bat izatea ere funtsezkoa da, Pablo Ibarren errugabetasuna defendatu eta fiskalaren argudioak ezeztatu beharko baititu. Ezinbestekoa da Pablo aske izateko. Prozesu luzea izaten ari da, baina Candidok ez du amore eman. Berak lanean jarraituko du bere semea kartzelatik atera arte, eta bere ondoan Tanya egongo da, Pablaren emaztea. «Berari esker eutsi dio egoerari Pablok».


Bukatzeko, herritarrek ere Pablo Ibar Elkarteak martxan jarritako kanpaina parte hartu ahal dutela gogoratu du Candido Ibarrek. Izan ere, aipatutako elkartearen webgunean ([www.pabloibar.com](http://www.pabloibar.com)) dohaintzak egiteko aukera dago.

presorentzat eta ingurukoen-tzat. Denbora luzez itxaron oste-an, eta Peñalverren kasuan ger-tatua ikusita, zaila zen ulertzea Floridako Auzitegi Gorenak har-tutako erabakia. Hala ere, ez zu-ten amore eman eta defentsa estrategia aldatu zuten. Herio-tza zigorra ezarri zion jatorrizko epaitegira itzuli eta beste hele-gite bat aurkeztu zuten, lehen epaiketan izan zuen ofiziozko abokatuak egindako lana dese-gokia izan zela argudiatuz. «Au-zitegi federalera joaten bazara agian ez dizute kasurik egiten», azaldu du Candido Ibarrek.

2009ko martxoaren 16an izan zen Ibarren kausaren bista. Ben-jamin Waxmanek, abokatu be-rriak, hiltzera zigortu zuten epaiketan Pabloren eskubide konstituzionalak ez zirela erres-petatu salatu zuen, ez baitzuen behar bezalako defentsarik izan. Bere aurkako frogak nagusia –ka-litate gutxiko bideo bat– gazte bati heriotza zigorra ezartzeko nahikoa ez dela ere argudiatu zuen. Are gutxiago hilketa gau-zatu zen lekuan aurkitutako hatz markak eta DNA Pablo Iba-rrenak ez direla ikusita.

Pabloren aitak gogoratzen duenez, helegitea aurkeztu zute-nean Waxman bera eta Pabloren senideak telebista saio batera jo-an ziren kasua azaltzera. Horri esker, Ibarri leporatzen zioten hilketa hirukoitzaren ustezko egilea ezagutzen zuen pertsona bat topatu zuten. Juan Gisbert zuen izena, eta Sucharsky, An-derson eta Rorgers hil zituen William Ortiz zela esan zuen. Di-rudienez, Ortizek berak azaldu zion gertatutakoa xehetasun guztiekin. Lekuko horrek esan-dakoa helegite berri baten oina-rria izan zen, onartu egin zena.

Prozesu luzea izan zen. Epaile-ak Ortizen hatz markak hilketa lekuan topatutako aztarnek-in parekatzea agindu zuen, eta pa-rekatze horren emaitza negati-boa izan zen. Eta 2010eko urrian DNA frogak ere negatibo eman zuen. Epaileak Ortiz errugabea zela esan zuen eta beste epaike-ta bat egiteari uko egin zion. «Lehen epaiketan izan ziren irregulartasunak ez zituen ain-tzat hartu. Urteak egon ginen



Candido Ibar Gasteizen izan zen pasa den astean Iñigo Urkullu lehendakariarekin eta Jonan Fernandez Bake eta Elkarbizitza Saileko zuzendariarekin hitz egiteko.  
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

«Euskal Herrian jen-deak ez du ulertzen heriotza zigorra, %80 daude kontra eta %20 besterik ez alde. Baina Floridan egoera ezberdina da, heriotza zigorra-ren alde daude»

«Orain hobeto bizi gara. Lehen ez genuen ezer eta orain pozik egoteko arrazoiak ditugu: Auzitegi Gorenaren erabakiak gure esperantza piztu du berriro»

zain, hiru aldiz atzeratu zen era-bakia, eta, azkenenean, geunden bezala geratu ginen», gogoratu du Candido Ibarrek.

Berehala Pablo Ibarren aboka-tuak beste errekurtsio bat aur-keztu zuen Floridako Auzitegi Gorenean. Honek helegitea az-tertzen zuen bitartean, 2012an, epaimahaiak Seth Peñalver errugabe zela adierazi zuen, be-re erruduntasuna ziurtatzeko frogak nahikorik ez zelako. Be-rriak Ibar familiaren esperantza piztu zuen, baina urteak itxaron behar izan zituzten oraindik Au-zitegi Gorenak euren helegitea ebatsi arte. Ia lau urte pasa ziren Floridako justiziak zigorra ber-tan behera utzi arte.

Auzitegi Gorenak Ibar hilkete-kin lotzeko frogak fisikorik ez da-goela ebatzi du, eta hilketa izan zen lekuan agertutako kamise-tan Ibarren DNA zantzurik ez zela gaineratu. Fiskaltzak erre-kurtsio bat aurkeztu du Auzitegi Gorenaren erabakiaren kontra, eta datozen asteetan ezagutuko dute azken erabakia Ibarren ger-tukoek. Dena den, Candido bai-korra da eta semeak epaiketa justu bat edukiko duela espero du. «Orain hobeto bizi gara, le-hen ez genuen ezer eta orain po-zik egoteko arrazoiak ditugu», dio Pablok Gorenaren erabakia-ren berri telebistaz izan zuela gogoratzen duen bitartean.

Floridako Auzitegi Gorenak Fiskaltzaren errekurtsioa ez onartzea espero du orain Candi-dok. «22 urte daramatza preso, bizitza erdia igaro du barruan, eta orain epaiketa justu bat iza-tea espero dugu», azpimarratu du. Epaiketaren gastuei aurre egiteko Candidok, Pablo Ibar El-kartearen laguntzarekin, Hego Euskal Herriko eta espainiar Es-tatuko hainbat erakunderi la-guntza eskatu die. Izan ere, 1,3 milioi dolar behar dituzte abo-katuak eta egin beharreko txos-tenak ordaintzeko. Oraingoz 600.000 dolar baino gehiago bildu dituzte, behar duten erdia. «AEBetan bakarrik dugu fami-liaren laguntza, eta gure baliabi-de ekonomikoak agortu dira ja-da», nabarmendu du Candidok. Amaitzeko, euskal gizartearen laguntza eskertu nahi izan du.

# Euskarak «lobby»-a behar du

**Xabier Mikel  
Errekondo**

**Z**oritxarrez berriro ere itzeleko zaplazteko bi jaso ditu euskarak eta euskaraz bizi eta hezi nahi duten herritarrek. Biak Nafarroan. Esku gorrituak agerian dira, bata Madrileko Gobernuarena eta bestea agintepeko nafar beso juridikoarena. Nafarrek ez ei dute nonbait eskubiderik ETB ikusteko, ez haur eskolan D eredurik jasotzeko apur batek ezik. Zorionez erabaki biek euskara agenda politikoaren erdigunean jarri dute. Eta euskalgintza osoak erantzun egin du. Ikasle, guraso, irakasle, ikastetxe, sindikatu, alderdi zein instituzioek. Antza, bestetxetik egin erasoen aurrean ba da erantzuten. Bestela gertatzen da etxe barrutikakoekin. Alegia, gu-re instituzioetatik aplikatzen den hiz-

kuntza politikarekin. Herri euskaldun eleanitza ez da pauso bakarrean eraikiko, gutxiago hirigune ia denak eremu elebakar erdaldunak direnean. Egungo egoera irauli beharra dago, eta, gustatu ala ez, egoera hori aintzat hartuta eragin. Ez bedi izan ausardia faltagatik, nahiz tonaka erakarmen dosirekin. Beza helburu bera konpartitu euskalgintza osoak.

Euskal politikagintzan euskara ahate-txo itsusia da. Baita egun ere. Konplexuz betetakoak dira euskararekiko politikak. Udalerri mailatik hasi eta erkidegoetako gobernuetaraino. Mendoza eta Uriarteren (tx)epelkeriak azken lekukoak.

Jendartearen gehiengoak euskara errespetatu eta maitatzen duenean, he-

rritar euskaldun eleanitzak hezteko helburua konpartitzen dugunean, eskura ditugun gobernuek eta alderdi politikoek konplexuak gainetik astindu, euskara kohesio sozialerako tresnarik eraginkorrena dela barneratu eta estrategia ausartak abian jartzeko gai ez badira, norbaitek behartu egin beharko ditu.

Nago norabide zuzenetik urrutitxo goazela Wert ministro ohiak Generalitateko hizkuntza politikari aurre egiteko Jaurlaritzarena babesten duenean. Politikagintza orok hizkuntza bakarra du ulertzen, *lobby*-ena. Uler beza euskalgintza osoak giltza soilik berak dezakeela izan, erremediorik gabe amildegira baikoaz alderdiak behartzeko adina indar lukeen *lobby*-a osatu artean. •

# Gazteen erdiak galdu ditugu

**Maidier Iantzi  
Goienetxe**

**B**izkaian duela 30 urteko gazte kopuru erdia dagoela jakin dugu asteon. Hiru hamarkadotan 16 eta 29 urte bitarteko neska-mutilen %44 galdu ditugu. 200.000 gazte ere ez daude milioi bat biztanle baino gehiagoren artean. Horietatik %22,9, gainera, langabezian daude eta bizimodua ateratzera kanpora joatea aukera nagusietako bat da eurentzat. %56,3 gurasoekin bizi dira.

Araba eta Gipuzkoa barrenean hartzen baditugu, joera antzekoa dela ikusiko dugu: erdira jaitsi da EAEko gazte kopurua 2011 eta 2014 artean. 448.000 lagunetik 290.000ra, hain zuzen. Beldurgarria da langabezia tasa: %25,6koa. Gazte Kontsei-

luak, Gasteizko Legebiltzarrean politika eraginkorrak eskatzearekin batera, ohartarazi du langabezia tasa batez bestekoa baino hamar puntu handiagoa dela gazteen artean eta arrakala hori handituz doala urtez urte, behin-behineko kontratu kopurua bezala.

Cebek Bizkaiko patronalaren biltzarren ekitaldian enpresak gazteei irekitzeko beharra aldarrikatu du Iñigo Urkullu lehendakariak. Politikariak bat datoz datuak hagitz kezkarriak direla erratean, belau-naldi berriak direlako etorkizuna. Baina, tamalez, bertze behin, hitz hutsetan gelditzen direla iruditzen zait. Gazteez solas egiten dute denbora osoan, baina gaztee-

kin solas egin gabe. Zenbakiak ematen dira maiz hauen giblean dauden bizitzeko pentsatu gabe.

2025era begira jarrita, Euskal Herri osoko eskulanaren proiektzioa egin du Gain-degiak: urte horretara bitartean 215.100 langilek hartuko dute erretreta eta, behategiaren hipotesiaren arabera, 392.200 pertsona gehiago egonen dira lanerako. Beraz, 177.100 enplegu sortu beharko dira datorren hamarkadan. Hortik berrikuntzan eta ikerketan saiatzeko premia, lan eta bizi antolaketa aldatzeaz gain. Hemen-dik 30 urtera datuek gazterik ez dugula erran ez dezaten, okerrrena dena, gu horretaz konturatu ere egin gabe. •



## NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



# Eskola jantokietan elikagai ekologikoak txertatzeko gida aurkeztu du Ekolapikok

**P**asa den astezkenean, Ekolapiko egitasmoren baitan dauden hiru eragileek –Cristina Enea Fundazioa, Biolur eta ENEEK (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua)– ikastetxeetan Ekolapiko egitasmoa inda-

rrean jartzeko gidaliburua aurkeztu zuten Donostian. Pirritx, Porrotx eta Marimots pailazo ezagunen babesa izan zuten ekitaldian. Gidak egitasmoaren ibilbidean pilatutako esperientzia eta hausnarketak biltzen ditu, egitasmoa martxan jartzeko irizpide, pauso eta xehetasunekin.

Ekolapikok, bertako baserrietan ekointzitako elikagaien bidez elikadura ekologikoa eta osasuntsua ikastetxeetako jangeletan txertatzeko proiektu bezala, 2006. urtearen amaieran eman zituen bere lehenengo pausoak, eta egun, aipatu hiru eragileek hartzen dute parte egitasmoan.



Argazkiak: CRISTINA ENEA FUNDAZIOA - Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Donostiako Udalarekin elkarlanean, hiriko hiru haur eskolatan jarri zen abian Ekolapiko bere hastapenetan, eta ondoren beste udalerrri eta ikastetxe batzuetara hedatu zen: Usurbil, Beasain, Hernani, Oiartzun, Errenteria eta Ibarra. Segurako aterpetxea ere gehitu zen. Denen balorazioa oso positiboa da orokorrean, bai elikagaien kalitateagatik, baita baserritarrekin dituzten harremanengatik ere. Egun, zazpi udalerritan dago indarrean egitasmoa, eta egunero batez beste 675 otordu ekologiko prestatzen dira.

Bere hastapenetatik hiru ardatz nagusi izan ditu Ekolapikok: osasuna eta hezkuntza; ingurumena; eta landa-garapena.



Txema Hernandezek, Cristina Enea Fundazioko zuzendariak, egitasmoak ikasleen osasunerako eta heziketarako dituen ekarpen eta onurak azpimarratzen ditu: «Jangeletara kalitate handiko produktuak iristen dira, freskoak, jaso berriak eta ekologikoki haziak, eta horrek eragin handia dauka ikasleen osasunean: bitamina, proteina eta beste elikagai guztiak ezin hobeak dira eta ikasleak dira etekina jasotzen dutenak».

Nolanahi ere, proiektuak ahalegin handia egiten du nekazaritza ekologikoaren eta elikadura osasungarriaren inguruko kontzientziazioan. «Horretarako, material didaktikoak garatu dira eta bisita gidatuak antolatzen dira ekoizleen baserrietara. Baliabide horiekin guztiekin, ikasleek hobeto jaten dute eta horren garrantzia hobeto ulertzeko aukera dute».

Ekolapikon, noski, bertako, sasoiko eta ekologikoak diren elikagaiak aukeratzen dira. ENEEKeko ordezkari Xabier Lejarzegiren esanetan, «lurraren emankortasuna, eta ekosistemen eta gizakien osasuna mantentzen eta indartzen duen erudia da nekazaritza ekologikoa. Horrenbestez, ongari kimiko, pestizida eta genetikoki eraldatutako organismorik erabiltzen ez denez, kontsumitzaileen eta ingurumenaren osasuna zaintzen du».

Egitasmoaren hirugarren erpina, landa-garapena da. Ekolapikon parte hartzen duten ikastetxeetako sukaldeetara, inguruko baserrietako produktuak iristen dira; hala, bertako ekonomia sustatu eta bertako ekoizleak bultzatzen dira.

Miriam Arrizabalaga, Biolur-eko ordezkariaren esanetan, «baserrien eta landaguneen etorkizuna bermatzeko esfortzua egin beharra dago, keinu txiki askorekin bultzada handia emanez; eta denon eskura dagoen aukera bat da hemen ekointzitateko elikagai ekologikoez elikatzea». Hain zuzen ere, horixe bermatzen du Ekolapiko egitasmoak, indarrean jartzen den ikastetxe bakoitzetik gertu dauden baserrietan baitute jatorria ikastetxe horietan jaten diren elikagaiak.

#### «EKOLAPIKO GIDA»


10 urte luze hauetan egitasmoak pilatutako esperientzia guztiak biltzeko, eta ikastetxeetan Ekolapiko txertatzeko jarraibide gisa, «Ekolapiko gida» aurkeztu dute aste honetan Cristina Enea Fundazioak, ENEEK-ek eta Biolur-ek. Gida honen helburua ikastetxeak laguntzea da, eskaintzen duten jantoki-zerbitzuan elikagai ekologikoekin lan egiteko eman behar dituzten pausoak ezagut ditzaten. Aldaketa-prozesuan egon daitezkeen

zalantzak argitzen ere laguntzen du dokumentuak. Tresna lagungarri hau jorratzeko, Ekolapiko proiektuko parte hartzaileen esperientzia eta ekarpenak bildu dira.

Horretarako, egitasmoan elkarri eragiten dioten elementu eta aldagai guztiak kontuan hartu dira; esaterako, eta besteak beste, Ekolapiko abian jartzeko ikastetxe-ko sukaldean egin beharreko aldaketak, menuen gainkostua, menuen azterketa eta umeen egokitzapena. Ekolapiko martxan jartzeko beharrezko gutxieneko baldintzak ere azaltzen dira, hala nola: sukalde propioa, elikagai ekologikoak eta menu orekatu eta osasungarriak, eta batez ere partaide guztien sentsibilizazioa eta inplikazioa (ekoizle, sukaldari, irakasle, ikasle, guraso eta abar).

Gida hau, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetara bidaliko da datozen egunetan, ikastetxe bakoitzak egitasmoa bertan txertatu ahal izateko irizpideak eta jarraibideak ezagut ditzan. Dokumentua eskuragarri egongo da hiru eragileen webguneetan ere, interesa duen edonork doan kontsultatu eta deskargatu dezan.

ENEK  
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura  
Ekologikoaren Kontseilua



Eneko Agirre (zutik) eta Josu Goikoetxea, Agirreren bulegoan, ikerketaren posterra erakusten. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

# infraganti ENEKO AGIRRE JOSU GOIKOETXEA

EHUko Informatika fakultatean, Donostian, hartu gaitu Eneko Agirre Google Research-ek saritutako irakasleak. Aitor Soroa eta Oier Lopez de la Callerekin batera ikerketan lagun duen Josu Goikoetxea ere batu da elkarriketara. IXA taldekoak dira, eta zenbakiak eta letrak uztartuz altxorren mapa osatu dute makinek erraten dieguna uler dezaten.

Hitzak irakurtzean guk letrak ikusten ditugun lekuan zenbakiak eta koordinatuak irudikatzen dituzte Eneko Agirrek eta Josu Goikoetxeak. Hitz bakoitzari zenbaki sorta bat edo bektore bat esleitzen diote. «Zenbaki bakoitza esanahiaren tasun edo ezaugarri semantiko bat da. Orduan,

zenbakien konbinazio desberdinekin esanahi bat edo beste bat lortzen da», agertu du Goikoetxea doktorego ikasleak. Esanahia puntu bat da espazio batean. Zenbat eta hurbilago egon puntuak, semantikoki ere hurbilago daude. Bertze modu batera kontatu du Agirre Lengoaia eta Sistema Informatikoak saileko irakasleak: «Ordenagailuek hitzak ikusten dituztenean ez dakite ezer

gure munduari buruz, ez dakite hitzak zeri lotuta dauden eta zer esan nahi duten. Bai itzulpen automatikoan eta bai bilaketak egitean, Google bertan edo beste edozein bilatzailetan, gertatzen dena da hitz bera ez badu topatzen berdin idatzita ez dakiela zer egin. Orduan, makinek munduari buruzko ezagutza behar dute, hau da, hitzen esanahiei buruzko informazioa, gauzak elkarrekin lotzeko». Adi-

bidez, jakiteko “eserleku” eta “aulki” sinonimoak direla. Zenbakiak erranen dute “katu” hitza koordinatu batean dagoela eta bertze zenbaki batzuek bertze puntu batean kokatuko dute “kutxa”. “Banku” hitza “kutxa”-tik hurbil dago. Hala jakin daiteke gertu daudenek esanahi antzekoa dutela. “Kutxa” aipatzen den esaldi bat itzultzen ari bazara, makinak ez badu lehenago ikusi hitz hori, badaki “banku”-ren antzekoa dela eta honen itzulpenarekin itzuliko du. Kutxen finantza informazioa bilatzean ere, lotutako dokumentuak topatuko lituzke nahiz eta “kutxa” hitza ez aipatu. Hau da, munduari buruzko informazioa gehitzen diote hitz bakoitzari mapako lokalizazio bezala. Baina hainbertze hitz daude, eta berriak sortzen dira, gainera... Nola egin lan hori guztiekin? Goikoetxeak esplikatu du alde batetik corpusak erabiltzen dituztela, Wikipedian dagoen testu osoa, adibidez. Bestetik, grafoak baliatzen dituzte. Wikipediako artikuluko bateko esteka batek bertze artikuluko batera bidaltzen zaitu. Kontzeptuen arteko egitura erraldoi bat dago loturekin eta horri deitzen zaio grafoa. Testuak izaera bateko informazio semantikoa du eta grafoak bertze batekoa. «Osagarriak direla ikusi dugu eta bi informazio mota horiek bateratu nahi izan ditugu». IXA taldearen metodoa guztiz automatikoa da. Ezagutzen dituzten hizkuntzekin probatzen dute, euskara, gaztelania eta ingelesarekin. Baina edozein hizkuntzarentzat balio du. «Gertatzen dena da ez dakigula ondo ala gaizki egiten duen, baina berdin egiten du», diote irriz. **ALT XORRAREN MAPA** Wikipediako informazio guztia mapa batera ekartzen dute. Hala, hitz bakoitza bere lekuan dago. Hitzen zerrenda luze bat da, bakoitza bere koordinatuekin. Altxorren mapa bezalakoa da. «Nahi dituzun hitzak irudikatzen ahal dituzu, edo distantziak kalkulatu», dio doktorego ikasleak gure harridura aurpe-

giarekin barrez. «Orduan, itzul-  
tzera zoazenean itzultzaile auto-  
matiko batek mapa hau hartzen  
du eta laguntzen dio bere lana  
hobeto egiten», gaineratu du  
lankideak. Mapa horrek hainbat  
erabilera izan ditzake. Adibidez,  
hagitz ohikoa da argazki artxibo  
batean argazki bat ezin aurkitu  
ibiltzea irudia sartu duenak ez  
dituelako zehazki zuk idatzitako  
hitzak idatzi. Mapok hagitz  
erraz aplikatu daitezke halakoe-  
tan, hitzen atzean dagoen esa-  
nahia delako garrantzitsua eta  
ez hitza bera.

Google Researchek saria eman  
zuen proposamena baliagarria  
izan daitekeelako hamaika kon-  
tutarako. «Mapa berean irudika-  
tzen ditugu hizkuntza guztiak.  
Ez bakarrik hitzak, esanahiak  
ere bai. Adiera bakoitza. Adibi-  
dez, banku baten argazkia bila-  
tzean zein banku nahi duzun  
bereizi ahal izango duzu, eser-  
tzeakoak ala banketxeak».

Hori lortu nahian dabilta. Oi-  
narrizko ikerkuntza da eurena.  
«Badakizu zure mapa hori oso  
ona bada, erabilerak berehalako-  
ak izango direla. Baina inoiz ez  
dakizu helduko zaren ala ez. Ur-  
tebete barru agian esango dugu  
emaitzak hobetu ditugula eta  
%75ean gaudela. Hori nahikoa  
da zure bilatzailea edo itzulpen  
zerbitzua hobetzeko? Beharbada  
bertan integratzen duzu eta ez  
du lana guztiz ondo egiten. Hori  
da ikerkuntzan inoiz ez dakizu-  
na, zenbat beharko duzun gero  
erabiltzaileek onura nabaritze-  
ko», argitu du Agirrek.

Google Researchen saria ho-  
netan ikertzeko da. Proposame-  
na gustatu zaiolako eman die  
aukera, baina ez du erran nahi  
proposamenak derrigorrez ongi  
funtzionatzea ekarri behar due-  
nik. Hemendik urtebetera Goo-  
gle etxeak ikerketa nola joan  
den ikusiko du. «Hura bisitatzen  
egon ginen. Gure arloko ikerla-  
riak dira, gu bezalakoak. Antze-  
ko gaiak ikertzen dabilta».

#### EUSKARAREN ALDE BALIATU

Doktorego ikasleak euskarari  
jari du fokua. «Ez ditugunez ho-  
rrenbeste baliabide, sektoreak  
ez dira kalitate larri onekoak eta  
metodo hauekin ingeleseko edo



Agirre eta Goikoetxea, EHUko Informatika fakultatean. Juan Carlos RUIZ | ARP

gaztelaniazko informazio se-  
mantikoa sartu nahi dugu eus-  
karazko sektoreetan, bilaketen  
eta itzulpenen kalitatea hobe-  
tzeko». Testuen tamaina txikia-  
goa da euskaraz, grafoena ere  
bai. Informazio gutxiago dago.  
Hizkuntza nagusi batzuk daude  
sarean: ingelesa, gaztelania, txi-  
nera... «Gutxi batzuk dira, ba-  
tzueta frantsesarentzat eta ale-  
manarentzat ere ez daudelako  
hainbeste testu jasota».

Helburuetako bat da, ingele-  
sezko mapa hagitz ongi egiten  
dutenez, bertatik ikasitakoa eus-  
karazkoa hobetzeko baliatzea.  
«Euskara hizkuntza gutxitua  
izateko ez dago hain gaizki beste  
batzuekin alderatuta, inondik  
inora. Hala ere, hobetu nahi du-  
gu eta eleaniztasun hau ustiatu  
nahi dugu euskararen alde ere»,  
adierazi du Goikoetxeak. Hiz-  
kuntzak batze hori interesgarria

da beren artean antzekotasunak  
daudela ikusten delako.

Burua batez ere erabilera kon-  
putazionalan jarrita dute, bai-  
na hizkuntzalariek ere erabil de-  
zakete, hitzen erabilerak az-  
tertzeako balio duelako.

#### MILIOIKA HITZEN IRUDIA

Hiru milioi hitzeko edo gehia-  
goko mapa osatu dute ingelesez.  
Hitzak ez dira bakarrik hiztegi-  
tan topatzen ditugunak; markak  
ere badira, jendeak erabiltzen  
dituen espresioak, Whatsapp,  
izen propioak, bereziak, leku  
izenak... Edozer gauza. Horrek  
balio du makinak jakiteko hi-  
tzen atzean zer dagoen. Hitz bat  
entzutean, «kutxa» edo «katu»,  
gauza aunitz etortzen zaizkigu,  
kutxei eta katuei buruz gauza  
pila bat dakizkigu. «Egiten du-  
guna da bai Wikipediatik eta bai  
testu dokumentuetatik katuari

**Hizkuntzarekin lan egiten duten programa  
gero eta gehiago daude, tartean makinekin hitz  
egitekoak. Baina erraten dieguna ulertzeko  
gure munduaren irudi edo ispilu bat behar dute**

**IXA ikertaldea ekipo bat bezalakoa da eta ahal  
den onena izatea komeni zaie. Beti daude prest  
jendea hartzeko. Fisikariak, Irakasle ikasketak  
egindakoak eta filosofoak ere badira taldean**

ku artean: itzultzaile automati-  
koa, zuzentzaile ortografikoa...  
60 bat ikertzaile dira. Heren bat  
hizkuntzalariek dira eta bi he-  
ren informatikariak.

Sare neuronalak erabiltzen di-  
tuzte. Horiek egiten dutena da  
hitz baten esanahia ikasteko in-  
guruko hitzen esanahia kon-  
tuan hartu. «Hori da gure oina-  
rri linguistikoa; gainerakoa  
matematika da».

#### LIGAKO PUNTUAK BEZALA

Mapak nola osatzen dituzten  
eta beren eguneroko lana nola-  
koa den galdetuta, irriz eta aho  
batez erantzun digute: «Ordena-  
gailuaren aurrean. Alde batetik  
sare neuronalak dituzu, eta, bes-  
tetik, baliabideak: testu edo cor-  
pus handiak ala grafoak. Progra-  
man sartzen dituzu eta ordu,  
egun edo asteetan egon ahal da  
makina prozesatzen. Amaitzen  
duenean fitxategi erraldoi bat  
daukazu. Hitz bakoitzak sektore  
bat du esleituta. Probak egin,  
ebaluatu eta akatsak konpon-  
tzen ditugu. Jende gehiago dago  
gauza hauek ikertzen eta beren  
lana irakurri, aztertu, ideia be-  
rriak pentsatu eta martxan jar-  
tzen ditugu. Zenbaki batzuk sor-  
tzen ditu sistemak eta Ligako  
puntuak bezala dira. Zenbat eta  
puntu gehiago, talde hobea».

Beraiena ekipo bat bezalakoa  
da, eta, ahal den onena izatea  
komeni zaienez, beti daude  
prest jendea hartzeko. Proiektu  
honek eta IXA taldeak lantzen  
dituen gaiak master batean  
(Language Analysis and Proces-  
sing) ematen dituzte. Etortzen  
denak ez du zertan informatika-  
ria edo hizkuntzalaria izan. Ma-  
tematikariak, fisikariak, itzul-  
tzaileak, Irakasle ikasketak  
egindakoak eta filosofoak ere  
badira taldean. Hagitz progra-  
matzaile onak, gainera, gauzak  
ikasi egiten baitira. •

Maidar Iantzi Goienetxe



# BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



NICOLAS ARDANAZ. NAFARROAKO MUSEO FUNTSA

## ULTZAMA IBAIKO LATSARIAK, ARDANAZEN BEGITIK

Ezkabarte udalerriko kontze-  
jua da Sorauren, Iruñetik ger-  
tukoa. Irudian, Erdi Aroko zu-  
biaren ondoan, latsariak,  
Sorauren zeharkatzen duen  
Ultzama ibaian. Atzean, San  
Andres Apostolua eliza neo-  
gotikoa, iragan mendean erai-  
kia. Donejakue bideko etapa  
bat, Orreaga eta Iruñea arte-  
koa, Ezkabarte ibarrean barre-  
na iragaten da. Udalerrria «So-  
raguengo batailak» famatu  
zuen. 1813an Wellingtonen  
tropek soldadu frantsesak ga-  
raitu zituztenekoa. Argazkia  
Nicolas Ardanaz Iruñeko ar-  
gazkilariak egin zuen,  
1963an. Haren argazkiak  
hainbat hedabidek argitaratu  
zituzten; bertako zenbaitek,  
“Pregón” eta “Vida Vasca”-k,  
bai eta argazki elkarte ba-  
tzuen aldizkariak ere, besteak  
beste, “Sombras” eta “Arte Fo-  
tográfico”-k.

# UMORE GRAFIKOAREN 25 URTE EUSKAL POLITIKAGINTZAREN KRONIKA DIBERTIGARRIENA

Egin, Euskadi Información  
eta Garako bineta,  
karikatura eta ilustrazio  
onenen bilduma

KIOSKOTAN  
SOILIK  
**11,95€**

Larunbata 14an  
eta igandea 15ean

# tasio

## 25 URTE

egin-etik gara-ra



(elebiduna: euskara/gaztelera)

GARA

